

Miranderen itzulpen argitaragabe batzuk

AIORA JAKA

Euskal Herriko Unibertsitatea

Nire doktore-tesirako egiten ari naizen ikerketek¹ Jon Miranderen itzulpen argitaragabe batzuetara eraman naute,² eta interesgarria iritzi diot lan horiek euskal itzultzaileen aurrean ezagutarazteari. Miranderen itzulpenak aztertuz (argitaragabeak nahiz dagoeneko argitaratuak), idazle zuberotarrak euskal itzulpengintzaren garapenari eman dion bultzada handiaz ohartu naiz, nahiz eta orain artean ez den itzultzaile gisa gehiegi aipatu eta baloratua izan. Hori dela eta, artikulua honen lehen zatian Miranderen itzulpengintzaren inguruko hainbat hausnarketa plazaratuko ditut, eta bigarren zatian orain arte kaleratu gabeko bere itzulpenak emango ditut.

1. Miranderen itzulpengintzaren inguruko hainbat hausnarketa

Lehenik eta behin aitortu behar dut Joseba Sarrionandiak eraman nauela Jon Miranderen itzulpenak aztertzeri. Izan ere, Sarrionandiaren itzulpengintza da nire doktore-tesiko ikergai nagusia, euskal itzulpenaren historian mugarri garrantzitsua markatzen duen itzultzailetzat bai-

-
1. Lan hau Eusko Jaurlaritzaren finantziazioari esker egin ahal izan da, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikertzaileak prestatzeko eta hobetzeko 2009-2010 ikasturtean emandako bekaren bidez. Gainera, FF12008-04516 kodea duen *Monumenta Linguae Vasconum (III): crítica textual, lexicografía histórica e historia de la lengua vasca* ikerketa-proiektuaren barruan kokatzen da.
 2. Lan argitaragabe horiek Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan daude, Andima Ibinagabetiaren funtsetan. Josune Olabarria anderea da, zalantzarik gabe, bilduma horren historiari buruz gehien dakiena, eta hark erakutsi zion Gidor Bilbao nire tesi-zuzendariari itzulpen hauetarako bidea; biei agertu behar diet nire esker ona, bai eta Euskaltzaindiari ere (eta bereziki Pruden Gartzia bibliotekako zuzendariari), lanak argitaratzeko baimena eta erraztasunak eskaintzeagatik.

taukat Iurretako idazlea. Sarrionandiak euskal itzulpengintzari egindako ekarpena hiru puntu hauetan laburbilduko nuke:

1. **Euskaratzeko hautatutako idazleak.** Sarrionandiak euskaratzeko hautatzen dituen idazleen zerrenda zabala eta askotarikoa da. Irekitze garrantzitsua suposatzen du hautaketa horrek euskal itzulpenaren historian.
2. **Itzulpenaren eragina sorkuntzazko lanetan.** Nabaria da Sarrionandiak euskaratutako autoreek bere sorkuntzazko lanetan izan duten eragina. Gainera, hainbat prozedura ludiko eta birsorkuntza-estrategiaren bidez, Sarrionandiak zalantzan jartzen du itzulpenaren eta sorkuntza originalaren arteko muga zurruna.
3. **Itzulpenaren ikuspegi postmodernoa.** Itzulpenaren ikuspegi modernoa gaintitu eta ikuspegi postmodernoa bat eskaintzen duen lehen euskal itzultzailea da.

Hiru puntu horietan Sarrionandia berritzaile dela uste dudan arren, ausartuko nintzateke esatera Miranderengan jada ageri direla itzulpengintzaren trataera horren aurrekari izan daitezkeen zenbait zantzu. Mirandek Sarrionandiaren idazlanetan izan duen eragina agerikoa eta sarri aztertua izan den arren, bi autoreek itzulpenaren arloari egindako ekarpena behar bezala aztertu ez delakoan nago. Ondoko lerroetan, beraz, Jon Mirandek euskal itzulpengintzan egindako aurrerapausoak azaltzen ahaleginduko naiz.

1.1. Euskaratzeko hautatutako idazleak

Bai Mirandek, bai Sarrionandiak, garai eta leku guztiz desberdinetako autoreen lanak euskaratu dituzte. Askotariko estilo, korronte eta literaturak bereganatu eta euskaraz eman nahi izan dituzte, beren inguruko euskal literatura mugatua zertxobait zabaldu eta osatzeko helburuz (ikusi, artikulua honen hirugarren zatian, Mirandek euskarara itzulitako lanen zerrenda). Sarrionandiak 1980ko hamarkadaren hasieran euskal literaturan nabaritzen zituen eskastasun eta itxitasuna aspaldi deitoratuak zituen Mirandek. 1950eko hamarkadaren hasierarako ohartua zen zuberotar idazlea euskal literaturaren antzutasun eta gabezia, bere lagun Andima Ibinagabeitiari 1952an bidalitako gutun batean argi adierazten duenez: “Nik hizkuntza eli bat ikasi ditut, oso hizkuntzazale naiz-eta, baina ez batetan ez bertzetan [...] ez dut gure euskaraz bezalako litteratur-*ezik* ediren [...]” (Mirande 1999b: 129). Literatura-gabezia hori betetzeko, Miranderen ustez, ez da nahikoa euskaraz idaztea; aitzitik, ezinbestekoa da beste hizkuntzetan egindakoak irakurriz eta itzuliz gure literatura aberastea. Horregatik ekin zion berak buru-belarri makina bat hizkuntza ikasteari.³ Honela azaltzen du hautu hori, Ibinagabeitiari bidalitako beste eskutitz batean:

3. Jon Miranderen lagun Txomin Peillenen testigantzari esker, badakigu Mirandek arrotz hizkuntza mordo ikasi eta erabili zituela, ama-hizkuntza zuen frantsesaz gain: “[...] mintzaira asko zekien eta sakonki: Galles, Bretoin, Irlandako goidelera, Alemanera, Gaztelera eta Euskara; maila apalagoan, baina ondo, Ingelera, Neerlandera, Italiano, Danesa, Hebraiara, Latina,

Zure guthunaren hitzetarik *lurralde burrunetako hizkara burrunago*-en ikastea, gaizki dagidala dirudi... Nik ez dut uste. *Ikol* ez lizen euskal litteratur baten emaraztekotz, euskaraz idaztea ez da aski: asko ikasi beharrak gara, lehenik, Euskaldunok. (Mirande 1999b: 154).

Bere herrikide abertzaleak tradizionalismo eta folklorismo itsu batean murgilduta ikusten zituen Mirandek, eta benetako literatura eta kultura bat sortzeko nahitaezkoa iruditzen zitzaion kanpoko korronteetara irekitzea. Kezka hori agertzen dio gutun berean Ibinagabeitiari: “Oroz lehen, batarzuna behar dugu. Gero, egiazko kultur-lanak idatzi, *eta hortakotz “baserritarrismu”* madarikatua *euskal idazkuntzatik bethikotz khendu.*” (Mirande 1999b: 155). Euskal literatura-ren “baserritarrismua” xeheago azaltzen du Ibinagabeitiari eskainitako elkarrizketa batean:

Euskera gutxitan aintzat artu dute gure iakintsu eta eskolatuek, orregatik gure erri-xeak ere euskera gai arruntenak erabiltzeko baizik ez dala uste du. Gure olerkariak gainera, gutxi batzu kendu ezkerro, gai arruntenak besterik ez ditute erabili beren poemetan. (Mirande *apud* Ibinagabeitia 1953: 100).

Horregatik hartuko ditu begi onez hainbat idazlek atzerriko literatura-lanak itzultzeko egindako ahaleginak: “uste dut Shakespeare, Poe, Sofokles eta Platon itzultzen duten euskaltzaleek lan beharrezko bat egiten dutela” (Mirande 1999a: 464). Norbert Tauer txekiar euskaltzaleari ere honela diotso 1953ko gutun batean:

Geroago ta beteago zaitugu euskera erabiltzean [...] ta ondo litzake txekeratiko beste itzulpenik idatz zenezan gure euskal-aldizkarietarako. Euskal-kultura urria zabalduko da, beste errien kultur-ondasunak txertatzen zaizkiolarik. (Mirande 1999b: 162).

Puntu honetan komeniko litzateke euskal literatura eta bereziki euskal itzulpengintza 1950eko hamarkada hartan zertan zen ikustea. Nire doktore-tesirako egindako ikerketetan ikasi ahal izan dudanez, euskal itzultzaileak oso berandu hasi ziren testu literarioak itzultzen: egia da euskal literaturaren historian pisu handia izan dutela oro har itzulpenek, alegia, euskarazko liburu-ekoizpenaren zati handi bat itzulpenek osatu dutela; baina kontuan hartzen badugu itzulpen horietako gehienak testu erlijiosoak zirela, funtsean funtzionalak, berehala ohartuko gara atzerriko literaturen itzulpenik apenas aurkitzen dela euskal itzulpenaren historian ia XX. mendera arte. Gainera, XIX. mendean nahiz XX. mendean hasieran egindako literatura-itzulpen gehienek ere nolabaiteko helburu funtzionala zuten, besteak beste haurrentzako testu didaktikoak euskaraz ematea, moralari buruzko gomendioak zabaltzea, euskararen apologia egitea edo are euskara literarioa lantzea. Horretarako, normalean, literatura kanonikoetako testu klasikoak hautatzen ziren itzulgai gisa, eta batez ere euskaldunen balore tradizionalak zalan-tzan jarriko ez zituztenak. Europako nahiz Ameriketako literatura-korronte berriak euskaratzeko, berriz, ez zegoen interes handirik, eta horrelako itzulpenik egitera ausartzen zenak ez zuen

Grekoa; bertzalde bere kabuz linguistika asko irakurria zen. Ikasi hizkuntza gehienak *mintzatzen* zituen. Gainera, hizkuntza zaharren zaletasuna zuen: Finiara, Hebraiara, Gotikoa, Irlandera, Germanera zaharra.” (Peillen *apud* Mirande 1976: 20).

normalean bere lana argitaratuta ikusteko zorterik izaten, Jon Miranderi nahiz bere inguruko beste batzuei gertatu zitzaizen bezala. Adibide gisa, artikulu honen amaieran emango dudan Miranderen itzulpen argitaragabe bat aipa liteke: Mirandek, 1950eko hamarkadaren hasierarako, euskaratuak zituen Nietzscheren Zarathustraren hainbat atal, baina ahaleginak eta bi egin arren ez zuen lortu itzulpen haiek euskal aldizkarietan argitaratzea. Honela diotso Norbert Taureri 1955eko gutun batean: “Bertze idazlanik aunitz ba nituen asiak, ala nola Zarathustraren itzulpen bat, heraldikaren gaineko istudio bat, poema e.a. bainan ez ditut amaitzen eusko-aldizkariak ez dituztelako noski argitaratuko.” (Mirande 1999b: 198). Ibinagabeitiari ere antzera mintzo zaio: “Nietzsche-ren Zaratustra-ren itzulpenak noiz emanen dituzue *Euzko-Gogoa*-n? Hala nahi nuke. Zaitegik ez ba du pentsatzen idazle hori pornographu bat dela...” (Mirande 1999b: 203). Itzulpen haiek, azkenean, argitaratu gabe gelditu ziren. Beste aldizkari batzuetan ere antzeko arazoak izan zituen:

[...] Ibarrodok [...] telefonatu dit bulegora, [...] eta esan dit ene itzulpena ez duela *Elgar*-ren argitarara eraziko, gaia euskalduna ez delakoan; gizon argitu horrentzat beraz, Shakespeare ez zen ingeles idazle, Coriolan-en protagonistak, adibidez, ingelandar ez baitziran... (Mirande 1999b: 321).

Maiz kezkatzen zen Mirande euskaldunen askatasun intelektual ezaz: “Nire ustez, askatasun intelektual geiago nabari ez deno Euskaldunen artean, zail izango zaigu egiazko kultura baten sortzea.” (Mirande 1999b: 190). “Euskaldun progresisten zentsura Francorena bera baino bortitzago dela dirudi.” (Mirande 1999b: 390). Bere lagun Ibinagabeitiak euskaratutako Ovidio-ren Maita-bidea argitaratzeko izandako oztopoek ere biziki sumindu zuten:

Damugarri zait zure, *Maita-bidea* argitaratzekotan ez delako berria: urthe hauietako euskal-lanik baliosenak izanen zen nabaski —zurikeriarik gabe diotsut eta holako arrotz lan-nagosi euskaratuen beharrean dago euskal-idazkuntza. Zoritxarrez, izpiritua hertsiegi dute haboroenek horien ulhertzekotz eta nahiago dituzte haurkeria baten publikatu. Nehoiz irakurri dudana litteraturarik ikolena da gurea (Mirande 1999b: 196).

Mirande kexu zen, euskaraz argitaratzen zen oro programa politiko itxi bati jarraituz hautatzen zelako. Euskaldun baserritar fededunaren balore tradizionalekin bat zetozen testuak soilik ziren onargarriak euskal intelektualen artean. Mirandek Txomin Peillenekin batera argitaratzen zuen *Igela* aldizkari heterodoxoaren lehen zenbakian, salaketa garratz hau kaleratu zuten bi idazleek:

Le puritanisme et la fausse gravité des basques censurent, mieux ou plus que les gouvernements, les fruits trop pimentés de la littérature écrite (Docteur Etchepare, Axular) expurgent la littérature orale (cancioneros), afin que les étrangers n’aient pas de nous une image différente de celle du basque honnête, travailleur, fier etc. Les tabous et fanatismes de droite et de gauche ont une grande force chez nous. (*Igela* 1962: 37).

Horrexegatik, euskal aldizkariak ez zituzten euskaldunen irudi tradizional eta estereotipatu horrekin bat ez zetozen testuak argitaratu nahi izaten, eta orobat gertatzen zen itzulpenekin.

Gogoraraz dezagun, puntu honetan, XX. mendearen lehen erdian euskaratutako testu gehienak helburu politiko abertzale batekin hautatuak izaten zirela. Esate baterako, Orixe, Andima Ibinagabeitia, Bingen Ametzaga, Santi Onaindia eta Jokin Zaitegi, besteak beste, literatura-lan grekolatindarrak ahal zuten bezain sistematikoki euskaratzen hasi ziren XX. mendeko “itxarkundi” garaian, euskal literatura mendebaldeko kanonaren oinarri ziren obra klasikoekin hornitzea euskara duintzeko ezinbestekotzat jotzen baitzuten: “klasikoen euskal itzulpenak [...] ez dira egin liburu horiek aditu nahi zituztenen beharrari erantzuteko: euskararen duintasunaren alde eta euskara eta euskal literatura garatzeko helburuarekin egin dira”. (Ruiz 1995: 662). Klasiko grekolatindarrak ez ezik, prestigiotsutzat jotzen ziren literatura modernoetako lan klasikoak ere helburu berberarekin itzuli ziren, esate baterako Cervantes, Shakespeare, Dickens, Goethe edo Dante.

Mirandek, ordea, hertsiegia zeritzon literatura eta itzulpengintza militantzia politiko baten mugen barruan atxikitzeari, eta ozen aldarrikatu nahi izan zuen literaturak funtzio politiko orotatik libre egon behar zuela.

Sarrionandiak eta Pott bandak 1980ko hamarkadan aldarrikatuko zuten literaturaren autonomiaren beharra aspaldi eskatua eta praktikatua zuen Mirandek, Antonio Arruek 1960ko hamarkadarako ongi ulertu zuen bezala:

Mirande es ante todo enemigo de la poesía y en general de la literatura llamada en nuestros días «comprometida». Aun recientemente nos escribía diciendo que el poeta no debe ser en modo alguno un «engagé». Por lo demás, entiende que el poeta debe huir tanto de la predicación como de lo social, y procurar el cultivo de la poesía estrictamente pura. (Arrue 1963-1964: 186).

Mirandek aldarrikatutako poesiaren eta literaturaren autonomiaren ideia, ordea, inork gutxik bereganatuko zuen euskal literaturaren alor guztiak militantzia eta konpromiso politiko-ziprztinduta zeuden 1950eko eta 1960ko hamarkada haietan. Mirandek poesia eta politika bereiztearen beharraz idatzi zituen hainbat hausnarketa, izan ere, ez zituen argitaraturik ikusi ahal izan. Ondoko pasarte hau, esaterako, 1951rako prestatuta zeukan poesia-antologia baterako hitzaurre gisa idatzi zuen; zoritxarrez, ordea, poesia-antologia hura ez zen 1984 arte argitaratu. Interesgarria da hitzaurre horretan Mirandek herrigintzaz eta poesiagintzaz dioena irakurtzea:

Daukat Euskera ta Euskadi gaizkatzea bere lehen io-muga ukhan behar lukeela Euskalheritarr iathor orok; ene aldetik, io-muga, horren irixtekotz, guduka guztietara gerthu nago (gudukiderik non, ordea?) bainan, neurrthizketan dihardudalarik, bertzerik dut gogoan: oroz lehen nihaturen eta gogaide bakhan batzuen atseginerako idatzi ditut ene poemak —hots— «for the happy few». Aithorr dut poeta on batek, den pantheista ala papista, ez dakharrkeola herriari... pelotari on batek baino onura gehiagorik. Hain zuzen ere, ene neurrthitz ok ez ditut onurarako eginak, solhazerako baino; zilhegi baitzaiku noizik behin io-muga gurenak aldebat utzita solhazik nolaere bait bilhatzea. (Mirande 1984: 19).

Zilegi bekit hemen Joseba Sarrionandiaren aipu bat tartekatzea, hiru bat hamarkada geroago idatzi arren, Mirandek aldarrikatutakoaren hariari zuzen-zuzenean jarraitzen diola iruditzen baitzait.

Politika, etika eta idazkera alor desberdinak dira. Poetari, politikaren alorrean, gizarteko partaide denez, zapalketen aurkako eta askatasunaren aldeko konpromisoa dagokio. Euskal poetak, euskal tornulariak edo euskal futbolistak bezala, Euskal Herriaren askatasunaren alde ekiteko eginbidea izango du, eta gizarte egitura zanpatzaileen aurka, baina ez poeta delako ez eta Parnasoko alturetatik. (Sarrionandia 2006 [1985]: 172).

Agerikoa da, beraz, Mirandek Sarrionandiarengan izan zuen eragina. Aurreragoko lan batean ezin hobeto azaltzen du Sarrionandiak Jon Mirandek defendatutako literaturaren autonomia, biek miresten zuten Edgar Allan Poe idazle iparramerikarraren iritzien bidetik:

Edgar A. Poeren garaian Jon Miranderen Euskal Herrian bezala obra literarioaren balioa sinestearikin eta mezu moralekin loturik heltzen zen. Bata zein bestea, sermoi moralen aurka zeudenez, beren garaiko literaturaren kontrako espaloian jarri ziren. Areago, bai Edgar A. Poek bai Jon Mirandek, arte obraren xedea *egia* ezik, atsegina dela esan zuten. Poesia eta egia, poesia eta moralak ez datoz bat —dio Edgar A. Poek bere *The Poetic Principle* entseguan. Eta Jon Mirandek euskal irakurleak «dasta eta goza lizantzat» besterik ez du idazten. (Sarrionandia 1988: 130-131).

Miranderentzat, beraz, literaturaren helburua ez da mezu politiko edo moral bat zabal-tzea,⁴ ezta egia kontatzea ere, plazera, gozamina edo atsegina eragitea baizik. Hori dela eta, gustuko zituen autoreak irakurri eta itzultzen zituen, eta ez euskal literaturarentzat “kome-nigarriak” edo “beharrezkoak” ziren lanak. Aipatu hitzaurrearen bukaeran argi adierazten du zein den bere poesiaren helburua: “ene olerrkitxo bitxi ta minkorr hauk Euskaldun batak edo bertzeak adimen eta irudimen-atsegingarri eridenen dituelako itxaropena edukiten dut.” (Mirande 1984: 20).

4. Halere, esan beharra dago, Mirandek literaturaren autonomia aldarrikatu zuen arren eta bere garaiko idazle abertzaleen itxitasuna eta “baserriartasuna” kritikatu zituen arren, berak ere, bere gisara, buruan proiektu politiko jakin bat zuela idazten zuela askotan: “[...] hala nola Arestik edo Mirandek, euskal hizkuntzaren estandarizazioarekin eta euskal proiektu politiko batekin loturik idatzi zuten literatura.” (Gabilondo 2006: 69). Zentzu horretan, Miranderengan nolabaiteko aurrekariak agertzen diren arren, Pott bandakoak izan ziren literaturaren autonomia modu erabatekoan aldarrikatu eta praktikan jarri zuten lehen euskal idazleak: “Alegia, Pott izan zen lehena literatur talde gisa eratzen euskal hizkuntzalaritza eta politika abertzalearen arduetatik kanpo.” (Gabilondo 2006: 68). Sarrionandiak eta Mirandek itzultzeko hautatutako autoreei erreparatu gero, aise ikusten da Mirandek, oro har, bere ideologia politikoarekin bat zetozen idazleen obrak euskaratzen zituela. Sarrionandiak euskarara itzultitako autore asko, berriz, ez datoz inondik ere bat bere ideologia politikoarekin, baina horrek ez du garrantzirik, Sarrionandiaren ustez, helburua literatura egitea bada: “[...] irakurlearen hesparru ideologikoak berak asumitzen duen ideologiarena baino zabalagoa izan behar dik. Pedro Daguerre, Gustave Flaubert, Ezra Pound, T.S. Eliot, Fernando Pessoa edo Jorge Luis Borges bezalako autoreetan onartu beharrekoa duk, beren ideologia arbiuatu arren, beren pentsamendua heldua, sakona eta interesgarria dela, beren esperientzi intelektual eta humanoa baliotsua dela.” (Sarrionandia 1988: 134).

1.2. Itzulpenaren eragina sorkuntzazko lanetan

Argi ikusi dugu, beraz, Mirandek gustuko zituen lanak itzultzen zituela. Ez zituen, bere aurreko euskal itzultzaile gehienek egin bezala, iragan mendeetako autore “prestigiotsuen” lanak euskaratu. Miranderi autore modernoagoak interesatzen zitzaizkion; ez soilik Europako eta Ameriketako idazle ezagunak (Poe, Kafka, Baudelaire...), baizik eta baita literatura txiki-tako autore ez hain ezagunak ere (Séamus ó Mainnin irlandarra, Bernat Manciet okzitaniarra; Per Denez bretoaia...). Batzuk kontu ideologikoengatik interesatzen zitzaizkion (Nietzsche da hemen adibiderik garbiena), beste batzuk arrazoi estetikoengatik (hainbeste miresten zituen autore sinbolista eta surrealista aipa litezke), eta beste asko, besterik gabe, “irudimen-atsegingarri” zitzaizkiolako. Horregatik euskaratu zituen bere garaiko hainbat kantariren kantak (George H. Clutsamen *Ene kutuntxu*, Alec Wilderren *Lullabyland*, Percy Montrosereña dirudien *Kattalin* edo Stan Joansen *Zaldiz zeruan*, esaterako), edota herrialde urrunetako zenbait kanta edota kondaira herrikoi (*Bi beleak (eskoziar kanta zaharra)*, *Hirur lili = Drei lilien (Abesti aleman zahar bat)*, *Ene Biotzeko Maite Argia (Hebrideetako maite-kanta)* edo *Mette (Jutlandeko ixtorio zahar bat)*). Azkenik, beste hainbat lan probokazio moduan itzuli zituelakoan nago, euskal irakurleko kristau, zintzo, jator eta tradizionalistarengan nolabaiteko eskandalua eragiteko. Horrela, bere garaiko euskal abertzaleen itxitasun, itsukeria eta hipokrisia salatzeke balio zioten kontakizun edo poemak euskaratu zituen (geroago aipatuko dugun Nietzscheren “Aus hohen Bergen” poema, idazle kristau eta moralisten kritikotasun eza deitoratzen duena, edota Ernest Hemingwayren “The good lion” ipuina, atzerriko arrotz gaiztoen aurrean zintzo eta tolesgabe ageri den baina bere herrira itzultzean kanpotarrak bezain maltzur jokatzeko duen lehoi hipokrita bati buruzkoa, Mirandek euskarara itzuli baina gaur arte argitaratu gabe geratutakoa), baita euskaldunen balore kristauak hankaz gora jarriko zituzten gaiak jorratzen zituzten lanak ere, hala nola erotismoa, alkoholismoa, adulterioa eta abar (adibide gisa, orain arte argitaratu ez den Giovanni Boccaccioren itzulpen bat aipa liteke, *Adarra gatik adarra*, beren emazteak “partekatzen” dituzten bi gizonezkoen buruzkoa).

Mirandek itzulitako lanak berak sortutakoekin alderatuz gero, erraz antzematen da idazle zuberotarrak euskaratutako idazlanek eragin nabarmena izan zutela bere sorkuntzazko poema eta ipuinetan.

Friedrich Nietzsche

Eragin ideologikoari dagokionez, nabarmena da Miranderen lanetan Schopenhauer, Spengler eta Nietzsche filosofo alemanen eragina, Mujikak (1984a eta 1999), Azurmendik (1989), eta Aldekoak (1992), besteak beste, ongi aztertu duten bezala. Schopenhauerren edo Spenglerren lanik ez zuen euskaratu, nik dakidala, Mirandek. Bai ordea Nietzscheren lan batzuk, eta itzulpen horiek eragin ideologikoa ez ezik, eragin literarioa ere izan zuten Miranderen hainbat poematan, Iñaki Aldekoak ongi adierazten digun bezala:

Nietzscheren pentsamenduak poetaren barne barnean aurkitu zuen non sustraitua, eta handixe gobernatuko zuen poetaren mundu ikuspegi zabalena. Nietzscheren arrastoa hain sakona izango da, ezen ez bakarrik Miranderen imajina bat baino gehiago tankeratu zuen, baizik eta zedarrri ideologikoak ere betiko finkatu zizkion poetari. (Aldekoa 1992: 10-11).

Mirande bizirik zela argitaratutako Nietzscheren itzulpen bakarra “Mendi gallurretatik” dugu, “Aus hohen Bergen” poemaren euskarapena, 1952an *Gernika* aldizkarian argitaratua. Poema horretan, bere garaiko pentsalari eta moralisten kritikotasun eza salatzen du Nietzschek, eta gogor kritikatzan ditu moral judu-kristaua modu erabat pasiboan onartu izanagatik, urte batzuk lehenago idatzi zuen *Also sprach Zarathustra* liburuan agertu zituen ideien haritik. Ez da harritzekoa, beraz, Mirandek “Aus hohen Bergen” poema euskaratu izana, bide ematen baitzion bere bizitzan behin eta berriz deitoratu izan zuen euskal abertzaleen moraltasun kristau eta itxia salatzeke eta aldi berean paganotasun berri bat aldarrikatzeko. Poema horren itzulpena argitaratu zuenerako, ordea, itzulita zituen jadanik Nietzscheren *Also sprach Zarathustra* liburuaren hainbat atal, lagunei idatzitako eskutitzetan aipatzen duenez. Itzulpen horiek, baina, argitaratu gabe geratu ziren, euskal aldizkariak ez zituztelako argitaratu nahi izan. *Orrela mintzo zan Zarathustraren* atal bat, “Emakumetxo zaar ta gazteetaz” (“Von alten und jungen Weiblein”), Patri Urkizuk argitaratu zuen 1997an, *Jon Mirande Orhoituz* (1925-1972) liburuan. Atal hori eta beste hiru Azkue bibliotekan daude gordeta, Andima Ibinagabeitiaren paperean artean. Laurak editatu eta artikulua honen bigarren atalean eman ditut. Ez dakigu, ordea, Mirandek atal horiez gain liburuaren beste zatiren bat ere itzuli ote zuen. Lagunei idatzitako gutunetan aipatzen duenez, Zarathustraren hitzaurrea ere itzuli omen zuen, baina hori ere argitaratu gabe geratu zen eta ez da orain arte behintzat aurkitu. Honela ziotson Ibinagabeitiari 1954an bidalitako gutun batean:

Hala ere, ba dut Zarathustra'ren hatsarrea aspaldiko euskara itzulirik. E.G.an [Euzko Gogoan, alegia] argitara nahi ba zendute, aski duzu erraitea eta igorriko dut azken orrazi aldi bat eman ondoan. Leizarraga'ren hizkuntza biblikoa parodiatu dut itzulpen hortarakotz oraiko orthographiaz hala ere. (Mirande 1999b: 194).

Lehen euskal itzultzailearen hizkuntza biblikoa parodiatu nahi horretan argi ikusten da Mirandek obra hori itzultzean zuen asmo nagusia: moral kristauaren guztiz kontrako ideologia proposatu, hain zuzen lehenengo euskal itzultzaile handiak erabili zuen idazkera erabilita, biblia berri bat proposatuko balu bezala, Leizarraga aitzindari izan zen legez bera ere aitzindari izanez.

Nietzscheren itzulpen horiek eragin nabarmena izango dute gerora Mirandek sortutako poema batzuetan. Nietzscheren eragin handiena izan duen poema, agian, “Ohiko Jainkoari” da. “Testu horrek Nietzsche-ren *Así habló Zarathustra* edo *El gay saber* liburuen kopiaketa bat dirudi.” (Mujika 1999: 73).

Charles Baudelaire

Charles Baudelaire da Miranderen lanetan eragin handia izan zuen beste idazle bat. Mirande bizi zela haren lanen itzulpenik argitaratu ez bazuen ere, Andima Ibinagabeitiaren paperen artean “Mozkor zaite” poemaren euskarapena ageri da, artikulu honen bukaeran argitaratuko dudana. Baliteke, beraz, Mirandek hain maite zuen poetaren beste lanen bat ere inoiz euskaratu izana. Itzulpen edo, behintzat, irakurketa haiek, asko markatu zuten Miranderen idazkera. Luis Mari Mujikaren (1984a eta b) eta Gorka Aulestiaren (1989) lanetan ongi azaltzen den bezala, sinbolismoaren eragina ukazina da Miranderen lanetan:

Baudelaire-ren poetikak Mirande-ren olerkigintzan aztarna bereziak utzi zituen, eta *Baudelaire*-kin batera, *Mallarmé*, *Rimbaud* eta *Verlaine*-ren edergintzak, hots, Frantziako sinbolisten korrante aberats guztiak. (Mujika 1984a: 107).

Miranderen estilo sinbolista ezin hobeto azaltzen du Gorka Aulestiak:

Para Mirande y los simbolistas, la poesía es, ante todo, una entidad viva. Un poema es, pues, un acto de creación. Tiene que respirar vivo. [...]

La poesía no tiene que estar envuelta en nada. La de Mirande no era ni moralizante, ni social, ni política. Amaba la absoluta independencia en cuanto a la moral. En este terreno siguió las reglas de Baudelaire del «Arte Puro». Su misión era amar la belleza. El arte, para Mirande, tenía que estar apartado, sin un fin útil, porque lo que es útil es feo. El arte es un fin en sí mismo. Por eso, la literatura y la poesía no deberían ni moralizar ni filosofar. Ignoró la política y detestó la ética romántica de la poesía vasca, como habían hecho antes los simbolistas.

No era suficiente proclamar la verdad o expresar la realidad. Para Mirande, la poesía no era otra cosa que un simple juego de palabras y la búsqueda de la belleza literaria. (Aulestia 1989: 267-268).

Edertasun literario horren bilaketan, bai Mirandek, bai Baudelairek, beren garaiko gizartean eskandalagarriak ziren hainbat gai askatasun osoz jorratu zituzten. Baudelairek, esate baterako, “*traketsaren*, *zatararren*, *debekatuaren* olergaia egin zuen. Gizartearen tabu lotsatiak eraso zituen, absurduaren *mitifikazioa* ere egin zuen. Bestalde, demoniakoa ere mistika bat itsatsi zion.” (Mujika 1984b: 51). Baudelairek bere garaiko paristar gizartean sortutako eskandalu bera sortu zuen Mirandek bere garaiko euskal gizarte abertzale jatorrean. Erotismoa, homosexualitatea, pederastia, alkoholismoa, prostituzioa, ateismoa... ordura arte poesiarako egokitzat jotzen ez ziren gaiak erabili zituzten biek beren poemetan. Esanguratsua da, zentzu horretan, artikuluen amaieran emango dudana Baudelairen “*Enivrez vous*” prosazko poema, Mirandek euskarara itzulia, non irakurle ardoz, poesiaz edo bertutez mozkortzera bultzatu nahi baita.

Frantziar sinbolisten eragina agerikoa da Miranderen sorkuntzazko hainbat lanetan, Luis Mari Mujikak xeheki aztertu duen bezala:

Baudelaire-ren kasuan Mirande-ren «Neskatxak» poema lesbiandarrean «Las dos buenas hermanas»-en eragina suma daiteke, nolabait, eta baita «Lesbos» poemarena; gero ikusiko dugunez, «Lili bat» poesian ere Mirandek jarrera bodelerianoa hartzen du, neurri batean. Bestalde, «Pigalle», «Oia-

none», «Larunbat-arrats» olerkietako erotismoak baditu prezedente antzekotsuak Verlaine, Baudelaire, ala Rimaud-en orrietan. (Mujika 1984a: 107).

Poemek ez ezik, Mirandek idatziriko hainbat ipuinek ere sinbolisten kutsu nabarmena dute. Mirandek berak aitortzen du, esate baterako, berak idatzitako “Maitharien arnoa” ipuina Baudelairen poema batean oinarrituta egin duela. Honela esan zion Ibinagabeitiari 1956ko gutun batean:

Nire aldetik, berriz hasi naiz idazten, hein baten berere. Nahi nituke fantasiako eta izuzko iphuin laburrak egin, Poe, Le Fanu eta bertze anglo-saxoin idazleen antzekoak. Biga hasi ditut, batak “Gulezko, eta urkha-bilhur bat urrhezkoa...” dakhar izenburutzat, bertzeak “Maitharien arnoa” (azken honek Baudelaire-n poema batetik jesanik) eta urhent-bururatu ditukedanean igorriko derauzkitzut, ikhus ditzazun. (Mirande 1999b: 229-230).

Baudelairen eragina ez ezik, Edgar Allan Poerena ere oso nabarmena da ipuin horretan, Mirandek berak eskutitz horretan eta Jokin Zaitegiri bidalitako beste gutun batean ere aitortzen duenez: “Nahi ahal duzu bertze idazlanik bidal diezazudan? Biga baizik ez dut prestik: Gaskoinetikako itzulpen bat: “Burua” [B. Mancietena]; eta E.A. Poe-ren manerako iphuin-labur bat (oso laburra): “Maitharien arnoa” [...]” (Mirande 1999b: 235). Ipuin horretan, gizon mozkortu batek bere emaztea hil arte jipoitzen du. Mozkorkeriaren eta hilketaren gaiak etengabe ageri dira, hain zuzen ere, Baudelairen obran, baita Edgar Allan Poerenean ere. Bai Baudelairek, bai Mirandek, asko miresten zuten idazle iparramerikarra, eta biek itzuli zituzten haren zenbait idazlan.

Edgar Allan Poe

Miranderi asko gustatzen zitzaizkion nobela beltzak edo, berak zioen bezala, “kriminal elheberriak”. Jakina da, esaterako, Edgar Allan Poez gain, Sheridan Le Fanu, Montague Rhodes James, Oscar Wilde, H. H. Munro “Saki” edo Agatha Christie oso gustuko zituela, eta haien nobela beltzak irakurri ez ezik, antzekoak ere idatzi nahi zituela:

Nik kriminal-elheberriak asko maite ditut, eta maiz irakurtzen ditut, batez ere ingelazkoak (frantzes eta germanarazko zenbait ere bai), eta gauza hon da sail horrek ere bere lekhua izatea euskal idazkuntzan izuzko iphuinak (Poe, Le Fanu, James eta bertze britaindar idazleek asmatuen heinekoak) ere ikhusi nahi nituke gure mintzoan. Beharbada behin hasiko naiz holako zenbaiten idazten... (Mirande 1999b: 217).

Ikusi dugunez, asmo hori bete egin zuen eta hainbat izuzko ipuin idatzi zituen. Baita gustuko zituen idazle horien hainbat lan euskaratu ere. Hor ditugu, esate baterako, Poeren “Ixiltze”, “Amontillado upela” eta orain arte argitaratu gabe egon den “Itzal (Estalitz bat)”, ipuinen artean, eta “Bela” olerki ezaguna, berriz, poemen artean; edota H. H. Munro “Saki”-ren “Ipuin kondatzailea” eta “Leiho irikia”. Autore horien eragina begi bistakoa da Mirandek idatzitako beste ipuin askotan, baita hainbat poematan ere. Poerena bereziki. Hala, nabarmena da herio-

tzaren gaia umore puntu batekin tratatzeko modua Poerengandik hartua dela, Gorka Aulestia Miranderen eta Baudelairen poesia aztertzean adierazten digun bezala:

El tercer tema común entre Mirande y Baudelaire fue el humor negro, tomado de E. A. Poe. Fueron poetas de luz negra. [...] La muerte aparece frecuentemente en sus obras, pero presentada en forma grotesca, trágica y a la vez llena de humor negro. En el poema «Zakur hil bati», Mirande nos pinta la imagen de un perro muerto que flota como un corcho en el río. El poeta le rinde homenaje. No escasea el humor negro en la descripción. (Aulestia 1989: 267).

“Zakur hil bati” poeman, gainera, Poerekiko erreferentzia zuzena ageri zaigu, Mirandek “nevermore” hitza sartzen baitu seigarren ahapaldian, urte pare bat lehenago itzuli zuen Poeren “The Raven” poema ezagunean beleak behin eta berriro errepikatzen duen leloa. Hitz hori dela eta, gainera, arazoren bat izan zuela dirudi poema lehen aldiz *Euzko Gogo*a aldizkarian argitaratu ziotenean. Honela idazten dio Andima Ibinagabeitiari:

Zoritxarrez, nire bi poemak irar-huts zenbaitez joriturik ageri dira. Hori ez da, behar bada, gauza handia, txarrago dena “Zakur hil bati”ren neurthitz baten erdia irarkolako moldeetan galdu dake *nevermore* hitza zan (E.A. Poe’ren “Belea”tik hartua: nehoiz ez gehiago erran nahi du, bainan “tonus” bereizi bat du inglarazko poesia ezagutzen dutenentzat) [...]. (Mirande 1999b: 188).⁵

Mirandek idatzitako eleberri bakarrean ere, *Haur besoetakoan*, berriro errepikatzen du “tonus bereziko” hitz ingeles hori:

[...] itotzear den batek haize salbagarria xurruptzen duen legez, edan zuen irents zezakeen alkohol guztia eta orain, *nevermore*. Dena hurrendu artean iraungo ahal zion mozkorrak! (Mirande 1999b: 79-80).

Poerekiko erreferentzia zuzen gehiago ere ageri da Miranderen lanetan. Horrela, esaterako, “Larrazken gau batez” poemaren azpititulua “the mad pride of intellectuality” da, Poeren “To Marie Louise (Shew)” poematik hartutako pasartea.

Poeren eragina oso nabarmena da, bestalde, Miranderen izuzko ipuin askotan. Berak aitortuta, badakigu hainbat ipuini Poeren idazkeraren kutsua eman nahi izan ziola. Honela idazten dio Ibinagabeitiari 1953an:

Hitzeman bezala, huna egun garbitan jarri dudan iphuina: “Zinopha” [...]. Bertze iphuin batzuen gaia eriden dut eta bat bederen idatziko dut ere joan baino lehen: “Zazpi gizerhaile” duke izenburua. Dakhusazunetik, surrealista antz pittin bat dute nere lan berriok, Poe’ren khutsuaz gainera. (Mirande 1999b: 177-178).

Ipuin horiez gaiz, gorago agertutako aipu batean aitortzen zuen, halaber, “Maithariaren arnoa” ere Poeren eta Le Fanuren tankeran idatzi zuela, eta beste ipuin bat ere, “Gulezko, eta

5. Hain zuzen ere, *Euzko Gogo*a aldizkariaren 1952ko 11-12. zenbakiko argitalpenean, “nevermore” hitza falta da, seigarren ahapaldian. Gerora egindako argitalpenek akatsa zuzendu dute.

urkha-bilhur bat urrhezkoa...” izenekoa, estilo berean idazten hasi zela. Ziurrenik bukatu gabe geratuko zen ipuin hori; gaur egun behintzat ez da Miranderen lanen artean horrelakorik aurkitu. Bestalde, Jokin Zaitegiri 1956an bidalitako eskutitz batean, eginak dituen hainbat lanen berri ematen dio, eta tartean Poeren gisako ipuin bat aipatzen du: ““Ebakunde bat”, iphuin-labur bat, E.A. Poeren gisakoa, 2-3 orrialdetakoa.” (Mirande 1999b: 242). Miranderen beste hainbat ipuin eta poema ere umore beltzez zipriztinduta ageri zaizkigu, esate baterako “Eresi kantari”, “Gauaz parke batean”, “Behiak” eta “Ametsa” ipuinak, edota “Otso”, “Paranoia”, “Undina”, “Orhoituz”, “Eresi” eta “Neskatxak” poemak. Azkenik, Mirandek idatzitako eleberririk bakarra ere, *Haur besoetakoa*, Poeren estiloz kutsatuta dagoela aipatu izan du batek baino gehiagok, besteak beste Sarrionandiak:

Txomin Peillenek argi adierazi du, gero, **Jon Mirandek** berak esanikoa konfirmatuaz, ez zela **Vladimir Nabokovena** «Haur Besoetakoa» obraren iturburua [...] eta, aldiz, Jon Mirandek neskatxoaren xarma bere bizitzan bertan ezagutua eta dastatua zuela eta bere obra arras pertsonala zela. [...] Bestalde, **Jon Mirande** aipaturiko beste autore batekin lotu nahi bada, ene ustez, ez da **Vladimir Nabokov** baizik eta **Edgar Alla Poe** erreferentziatzen hartu behar litzatekeena, zentsibiltate eta grina hurbiltasunagatik. (Sarrionandia 1983).

Bukatzeko, ezin da aipatu gabe utzi, umore beltzaren erabileran, Franz Kafkaren ipuin surrealisten Miranderengan izandako eragina. Mirandek Kafkaren ipuin horietako bat euskaratu zuen, “Legearen aitzinean”, eta dagoeneko aipatu ditugun izuzko ipuin horietako zenbaitek ere asko zor diote Kafkaren estiloari. 1954an Mitxeleneri bidalitako eskutitz batean honelaxe aitortzen dio: “Alaz ere, ipuin labur bat igorriten dizut, “Laphurtarr klasikoak” idatzia. Humorezkoa da, eta Franz Kafka’ ren idaztankeraren antza eman nai izan diot.” (Mirande 1999b: 183). Itxura guztien arabera, urte horretan argitaratutako “Zazpi gizerhaile” ipuinaz ari da. Ez dira horiek (Nietzsche, Baudelaire, Poe eta Kafka) Miranderengan eragina izan duten bakarrik, baina nabarmenenak aipatu nahi izan ditut adibide gisa, Mirandek itzultitako lanek bere sorkuntza lanetan izan zuten eragina nolabait erakusteko.

1.3. Itzulpenaren ikuspegi postmodernoa

Artikuluaren hasieran aipatu dudanez, Sarrionandia da itzulpenaren inguruan nolabaiteko gogoeta postmodernoa eskaintzen duen lehen euskal itzultzailea. Euskal itzulpenaren historiari gainbegiratu bat emanez gero, agerikoa da itzulpen-jarduerak ez duela euskaldunen artean diskurtso edo hausnarketa teoriko sakonik garatu, XX. mendearen bukaerara arte gutxienez. Leizarragarengandik aurrerako euskal itzultzaileek beren itzulpenen hitzaurreetan esandakoek argi erakusten dute itzulpenaren gaineko hausnarketak itzultzaile bakoitzaren esperientzia kontatzera mugatu izan direla beti. Dena den, zenbait itzultzailek beren esperientziaz harantzago egindako teorizazio-saio urrietan, nabaria da itzulpenaren diskurtso modernoaren eragina (Jaka 2009).

Diskurtso moderno horren ezaugarri nagusiak honela laburbil litezke: Batetik, formaren (hitzaren) eta edukiaren (zentzuaren) arteko bereizketa garbia, edota itzulpenaren helburu

gorentzat jotzen den baliokidetzaren nozio abstraktua. Horixe da euskal itzultzaileen hitzau-reetan gehien errepikatu den adierazpena: itzultzaile batzuek hitzez hitz itzultzea hobesten dute (Bibliaren eta erlijio-testu sakratuen kasuan batez ere), eta beste batzuek, berriz, zentzua transmititzearen alde egiten dute. Itzultzaile bakoitza bere hautua justifikatzen ahalegintzen da, askotan barkamena ere eskatuz jatorrizko testua xede-hizkuntzara transferitzean gertatutako galera edota aldaketak direla eta. Bestetik, itzulpenaren diskurtso modernoan ikaragarriko garrantzia ematen zaio jatorrizko testuari nahiz autoreari: jatorrizko obrak zentzu objektibo edo transzendental bat du, eta bertan gordetzen den egia absolutua da; ondorioz, itzultzaileak inolako manipulaziorik gabe transferitu behar du eduki hori hizkuntza batetik bestera. Itzultzailea, beraz, bigarren mailako subjektu gisa ikusten da, jatorrizko testuaren eta itzulpeneko hizkuntzaren menpeko morroi gisa, eta ahalik eta gutxien esku hartu behar du itzulpenean, lan originalaren eta itzulpeneko hizkuntzaren handitasuna nabarmentzeko.

Sarrionandiaren itzulpenak nahiz sorkuntza-lanak ikusita, eta han-hemenka saio labur moduan idatzitako iruzkinak irakurrita, argi ikus daiteke bizkaitar idazleak literaturaren eta itzulpenaren inguruan egiten duen gogoeta ez datorrela bat ikuspegi moderno horrekin. Sarrionandiaren arabera, “literatura oro literaturaren literatura da, hots, literatura berari buruzkoa, eta poema orok aurreko poemagintzan du erroa” (Sarrionandia 1981: 6). Baieztapen horrek zalantzan jartzen du itzulpenaren diskurtso modernoak aldarrikatzen duen literaturaren originaltasuna, eta agerian jartzen du sorkuntzazko lan oro itzulpen den bezala, itzulpen oro ere sorkuntza dela: “Poemagintza translazioa dela esan dugu, eta izkiriartzea translazioa dela, irakurtzea bezala. Orduan, analogiaz betiere, dena da funtsean translazioa [...]” (Sarrionandia 1995 [1985]: 9). Itzulpenaren eta sorkuntza originalaren arteko mugaren hauskortasuna agerian jartzeko, Sarrionandiak hainbat birsorkuntza-estrategia erabiltzen du, hala nola apokrifiko edo sasi-itzulpenak, erreferentzia intertestualak, itzulitako poema edo ipuinen jatorriari buruzko informaziorik eza, itzulpenetan tartekatzen dituen ohar edo iruzkinak... Itzulpen-praktika berritzaile horrek agerian jartzen du hizkuntzen eta literaturen arteko elkarmenpekotasuna, eta argi erakusten du obra eta literatura bakoitza originala dela, baina aldi berean beste lan eta literatura batzuen aztarnak gordetzen dituela. Era berean, itzulpena eta literatura modu horretan ulertuz gero, itzultzaileak bigarren mailako subjektu izateari uzten dio, eta beste baten lanaren transmisore huts izan beharrean, lan hori bere egin eta bere modura birsortu duen idazle sortzaile gisa agertzen da (Jaka 2010).

Hori guztia dela eta, Sarrionandiak itzulpenari ematen dion trataera eta itzulpenaren inguruan egiten duen gogoeta postmoderno gisa definituko nituzke. Miranderi dagokionez, ezin esan idazle postmoderno baten aurrean aurkitzen garenik, bere garaiko euskal literatura “aurre-moderno” zertxobait modernotzen ahalegindu zen idazle aurrerakoi baten aurrean baizik. Dena dela, Sarrionandiak itzulpenaren inguruko hausnarketa postmoderno bere obretan modu praktikoan islatzeko erabilitako hainbat estrategia agerikoak dira Miranderen lanetan ere.

Esate baterako, gorago aipatu dudan bezala, intertestualitate-jokoek badute lekua Miranderen lanetan. Adibide agerikoenen artean, dagoeneko azaldutako Poeren hitz edo pasarteak leudeke, Mirandek bere idatzietan tartekatzen dituenak. Testuartekotasunaren erabilerak hankaz gora jartzen du edozein literaturaren izaera original, garbi, jatorrizko edo purua. Euskal itzulpenaren historiako itzulpen asko, hain zuzen ere, euskararen garbitasun eta jatortasuna frogatzeko egin izan dira; Juan Antonio Mogelen *Versiones bascongadas* hartako *demostración práctica de la pureza, fecundidad y elocuencia del idioma bascuence* gogoratzea besterik ez dago. Miranderen itzulpenek eta intertestualitate-jokoek, aldiz, guztiz bestelako zerbait erakutsi nahi dute, alegia, ez dagoela hizkuntza edota literatura garbi edo kutsatu gaberik, ezinezkoa dela historian zehar garatzen eta harilkatzen joan diren joera literario desberdinez osatutako sare konplexu horretatik ihes egitea; irakurlea, irakurtzen ari den lanaren idazlea eta itzultzailea bezala, ezinbestean dagoela harrapatu literaturaren den armiarma-sare erraldoi horretan.

Hizkuntzen eta literaturen arteko hartu-eman hori praktikan jarri nahi izan zuen Mirandek, eta horren ondorio dira, esaterako, beste hizkuntza eta literaturetako poesia-formak bereganatu eta euskarazko olerkiak haien arabera sortzeko egindako ahaleginak. Euskal olerkigintzan eta bertsolaritzan nagusi izan den errimaz gain, atzerriko literaturetako “barne-ritmua” ere bereganatu nahi izan zuen:

Orain arte gure olerkariak kontsonantez baizik ez ditute beren poemak antolatu. Ondo dakizu; ots-kidegoaz gainera ba dela beste zerbait neurtitzak ozen eta durunditsu biurtzen dituana, ritmua alegia. [...] Erbesteko poesi-eskola ageri zaizkigu azkenaldi auetan. Eta nik ere orrelako berri zerbait egin nahi nuke gure euskeraz. (Mirande *apud* Ibinagabeitia 1953: 99).

“Poesi izkera taiuzkoena” iruditzen zitzaion ingelesetik (Mirande *apud* Ibinagabeitia 1953: 99), nahiz eredu izan zituen frantziar poeta sinbolistengandik (ikus Aulestia 1989: 268, Verlaine poesia-arauek Miranderengan izandako eragina ikusteko) hainbat eredu mailegatu zituen Mirandek, eta haien poesia-arauen arabera ondu nahi izan zituen bere hainbat poema. Ibinagabeitiari idatzitako gutun batean aitortzen zuenez, denbora-pasa gisa ingelesezko “limerick” delakoak idazten zituen: “Angles olerki labur batzu dira hoik, ahalaz lizun eta rima aberatseko izan behar direnak” (Mirande 1999b: 211). Ingelesezko eredu klasiko bat eman ondoren, berak euskaraz sortutako bat ematen du. Kasu horretan, zenbateraino da Miranderen euskarazko “limerick” hori bere sorkuntza, zenbateraino itzulpena? Literaturen arteko maileguta-prozedura horiek zalantzan jartzen dute itzulpenaren eta sorkuntza originalaren arteko muga, baita edozein literaturaren jatorri puru edo kutsatu gabea ere.

Itzulpena eta sorkuntza originala nahasirik ageri zaizkigu, halaber, Miranderen hainbat ipuinetan. “Humore beltzaren modelak” izenburupean idatzitako kontakizunak, esate baterako, ez dago garbi berak sortuak ala itzulitakoak diren. Miranderen obra osoa biltzen duen Hiria argitaletxearen argitalpenak, esate baterako, ez ditu ez ipuin asmatuetan, ez ipuin itzulietan sartzen, “miszelanea” izeneko sail batean baizik. Gehienez ere hamar bat lerroko kontakizun motzak dira, umore beltzez zipriztinduak. Ez du jatorriaren inguruko inolako informaziorik

eskaintzen, eta badirudi berak sortuak direla. Dena dela, kontakizun horietako batzuk beste hizkuntza askotan ere ezagunak direla dirudi, Joseba Sarrionandiak eta Mitxel Sarasketak *Hamairu ate* izeneko ipuin itzulien antologian adierazten dutenez:

Euskarazko literaturan, eta gure umore beltzaren eskasian, Jon Mirandek eman izan ditu ipuinik politenak. «Humore Beltzaren Adibideak» izenarekin argitaratu izan direnetan (Patri Urkizuren edizioan: Jon Mirande, «Gauaz Parke Batean», Elkar, 1984) batzu itzulpenak dira dudarik gabe, baina baliteke haien artean orijinalak ere egotea. Masokistaren eta sadikoaren arteko solas ezaguna eskuetan zabalik duzun liburuan ere agertzen da, hamargarren atean, Kostas Axelos izenaren pean, baina ez batarena ez bestearena ez ote den gaude, hau da, inorena ez ote den, guziena dela halegia. (Sarrionandia & Sarasketa 1985: 8).

Sarrionandiak eta Sarasketak, izan ere, Mirandek hasitako joko horri jarraitu nahi izan diotela dirudi. Masokistaren eta sadikoaren arteko elkarrizketa Kostas Axelos idazle atenastarraren obratik hartu dutela diote, baina aldi berean aitortzen dute ez dakitela ziur harena ote den. Miranderen eta Sarrionandiaren joko horien bidez, agerian geratzen da tradizio desberdinek elkarri mailegatutako puskez osatzen dela literatura, eta autorearen eta obraren arteko erlazioa, subjektibotasunaren eta idazketaren arteko lotura, guztiz hauskorra dela. Txomin Peillenek, Miranderen ipuinez ari dela, ongi adierazten digu “asmakizun hutsezko idazlerik” ez dagoela, alegia, idazle orok idazten duela aurretik jaso eta irakurritako tradizioen eraginez:

Bere arazoak literatura bihurtzeko, itzulpenaren bidez, kanpotar ereduak eduki zituen, Poe, Saki, Kafka, Joyce, nahiz gero bere bidea hartu. Asmakizun hutsezko idazlerik badenik ez dut uste; benetako fikzioa orrialde zuria izango lizateke eta oraino paperak bere errealitate baluke. (Peillen 1987: 20).

1.4. Ondorioak

Jon Miranderen itzulpen argitaragabeak ematearekin batera, Mirandek euskal itzulpengintzari egindako ekarpen handia nabarmendu nahi izan dut artikulu honetan. Lehenik eta behin, euskaraz oraindik ezagutzen ez ziren hainbat autoreren lanak euskaratu zituelako, eta aldi berean euskaratik beste hizkuntzetara ere itzulpen ugari egin zuelako. Bestetik, itzulpenaren bidez bere garaiko euskal literatura itxi, ikol, garbi eta jatorra kanpoko literatura-korronte eta poesia-formez kutsatu zuelako. Eta azkenik, kutsadura hori edozein literatura-sorkuntzatarako beharrezkoa zela erakutsi zuelako. Mirande izan zen ordura arte ukiezinak ziren euskal idazleen balore eta eredu tradizional asko literaturaren eta itzulpenen bidez auzitan jarri zituen lehena, inolako lotsarik gabe gai lizunak eta erotikoak ukitu zituen lehena, euskal literatura kanpoko literatura-korronte modernoek jantzi zuen lehena. Miranderen ondorengo idazle eta itzultzaile handiek, Gabriel Arestik, Joseba Sarrionandiak nahiz Pott bandako beste idazleek, besteak beste, Mirande izan zuten hein handi batean aitzindari; haren lan eta itzulpenen bidez ezagutu zituzten askok atzerriko zenbait idazle ezezagun. Sarrionandiaren kasuan, aipatzekoa da Mirandek euskaratutako idazle asko itzuli zituela berak ere, hala nola Poe, Kafka, Prévert, Saki edo Baudelaire.

2. Miranderen zenbait itzulpen Andima Ibinagabeitiaren paperetan

Baliteke aurrerago Miranderen itzulpen gehiago agertzea, gauza ziurra baita argitaratuta-koak baino itzulpen gehiago egin zituela, Mirandek berak lagunei idatzitako gutunetan aitortzen duenez; baina asko eta asko galduak bide dira.

Hemen argitaratu edo berrargitaratuko ditudanak Andima Ibinagabeitiaren paperen bilduman bilduak dira, eta Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekaren artxiboan daude egun, Josune Olabarria anderearen lanari esker arras ongi sailkaturik eta katalogaturik. Jon Miranderen lanak Ibinagabeitiaren paperen artean izatea ez da harritzekoa, gauza ezaguna baita Mirandek eskuz idatzitakoak Ibinagabeitiari bidali ohi zizkiola mekanografiatzeko, eta gero zuberotarrak berriz bolalumaz zuzendu ohi zituela.

Itzulpen hauetako batzuk orain arte inoiz argitaratu gabeak dira, eta beste batzuk Txema Larrearen (Mirande 1984) eta Patri Urkizuren (Urkizu 1997) argitalpenetan agertutakoak. Nolanahi ere, hemen Ibinagabeitiaren bildumako denak eman nahi izan ditut, argitaragabeak eta noizbait argitaratuak, ziurrenik Larreak, Urkizuk eta hirurok jatorrizko berak erabili ditugun arren, zenbait irakurketa desberdin proposatzen ditudalako testu guztietan, batzuetan testua asko aldatzen dutenak. Gainera, itzulpenaren ale bat baino gehiago dagoenean (Miranderen eskuizkribua, Andima Ibinagabeitiak mekanografiatua eta are mekanografiatuaren ikatz-kopia, batzuetan Mirandek zuzendua eta beste batzuetan zuzenketarik gabea), aldaera guztien berri ematen ahalegindu naiz, itzulpen-prozesua bistaratzearen.

Hortaz, jatorrizkoetatik oso hurbileko transkripzioa ematen ahalegindu naiz, eta itzulpen-prozesua ulertzeko lagungarri izan litezkeen zuzenketa-ezabaketak eta testuen arteko aldaerak orri-barreneko oharretan eman nahi izan ditut.

Ondoko aldaketa grafiko hauek baino ez ditut egin:

Letra larri eta xeheak gaurko ohituren arabera egokitu dira.

Jatorrizkoan: <â>. Nire edizioan: <aa>⁶

Eskuizkribuan: <f>. Nire edizioan: <rr>

Eskuizkribuan: <Í>. Nire edizioan: <ll>

Jatorrizkoan: <->. Zenbaitetan, nire edizioan: <,>.

Itzulpenen aurkezpena nolabait antolatzearen, orain arte inoiz argitaratu ez direnak eman- go ditut lehenengo (hiru ipuin eta bi poema), gero Patri Urkizuk zati batean argitaraturikoa (Nietzscheren “Orrela mintzo zan Zarathustra”ko solasetako bat argitaratua eta hiru argitaragabeak), eta azkenik Txema Larreak eta Patri Urkizuk argitaratuak (bost poema).

Itzulpen bakoitzaren aurrean, Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako signatura, itzulpena biltzen duten dokumentuei buruzko oharra, jatorrizkoari buruzko argibideak, eta argitaraturiko itzulpenari buruzko informazioa bildu ditut, letra-tamaina txikiagoan.

6. *Osto ilak* itzulpena zubereraz idatzi du Mirandek, eta <â> grafia beste balio bat du hor, sudurkaritasunarekin-edo lotua; hortaz, itzulpen horretan, <â> utzi dugu.

2.1. Itzulpen argitaragabeak

2.1.1. Boccacio: "Adarra gatik adarra"

ABA-AIB-012-002 signatura du Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan.

Signatura horrekin, mekanografiaturiko lanaren hiru orrialdeen bi ale daude: jatorrizkoa eta ikatz-paperez eginiko kopia. Andima Ibinagabeitiak mekanografiatu bide zuen, eta haren eskuz idatzia (eta sinatua) da ikatz-kopian agertzen den eskuzko ohar bakarra. Bigarren ale hori Gotzon Egaña "Antxeta" idazleak eman zion Azkue Bibliotekari 2004. urtean, dohaintza gisa, Ibinagabeitiaren beste paper batzuekin batera.

Giovanni Boccaccioren Decameron (1348-1353) liburuko zortzigarren eguneko zortzigarren kontakizunaren itzulpena da, hasierako oharrean "Mirande'k antolatua" (eta ez "itzulia") dakarren arren, besteak bezalako itzulpena baita. Orain arte, nik dakidala, argitaragabea zen.

<1>

*Adarra gatik adarra . . .*⁷

Boccacio'renetik
Mirande'k antolatua

Lenago jaun aberats bi, Spineloz eta Sepe izendunak, Sienna'n ba zirela entzun dut. Gazte-gazteak ziran biak. Kale berean bizi ziran eta asko elkar-maite zuten.

Biak ezkonduak zeuden eta pollit ziran bi emazteak. Spineloz maiz Sepe'ren egoitzara joaten zan au etxean zegoenean, bai eta ez zegoenean ere. Ona lagunaren emaztearekin maitemindu baitzitzaion biotza. Korteia egin zion, ainbat eta ain bigunki non laster oneritzi baitzuen andreak.

Gisa ortan iraun zuen luzaro, adardunak deus esparrik txikiena euki gabe. Azkenean ordea, emaztea eta adiskidea elkarrekin zein laztanki zebiltzan ikusiz, gogoia naigabetu zitzaion. Egia jakitearren, Spineloz etxera zetorren eretian, bein, ezkutatzera joanen zela erabaki zuen.

Bertzea oitu bezelaxe ibili zan. Sepe non zegoan andreari galdegin zion. Onek, senarra joanik zela ustez, etxean ez zegoala erantzun zion. Spineloz'ek orduan muxu bat eman zion. Andreak ere muxukatu zuen eta eten-gabe ibili ziran orrela, elkarri muxuka. Sepe'k, bere ezkutugutik guztia zekusala, tuntik ez zuan esan, gero zer gertatuko zen jakin nairik. Andrea eta Spineloz elkarrekin lo-gelan sar eta atea beren ondolik giltzatzen ikusi zituen. Bere adiskide eta bere emaztearen salakeria gatik zenbateraino atsekabetu zen, errez da gogoatzea. Iskanbilik

7. *Gotzon Egañaren alean, Andima Ibinagabeitiak eskuz idatzita eta "A." inizialarekin sinatuta:* "Adarra, adar truke..." (jarriko nuke nik).

egitea ezertarako ez zukela ulertu zuen ordea. Laidoa garbitzeko ordez, bere lotsa geitu baizik ez zuken eginen... Ez zan beraz asarretu nai izan. Irriskurik gabe nola mendeka ziteken bilatu zuen eta, mendeka bide bat aurki-eta, len-bai-len burutuko zuela gogoan artu zuen.

Spineloz atera orduko, lo-gelara joan zan. Andrea ileak orrazten aurkitu zuen, naastu baitzitzaizkion pitin bat.

“Zer ari zera, Andrea? —galdetu zion.

“Ez al duzu ikusten?”

“Baita, ikusi dakusat... Beste gauzarik ere ikusi dut, obe izanen baitnuen egin ez ba’nu...”

Orduan ikusi zuen guztia emazteari azaldu zion. Arek, izu-ikaratan eta ukatzea alperrik zukela ulertuz, dena ezagutu zuen, otoi barka liezaiola eskatzen ziolarik, negar malkotan.

“Laido andiagorik ez ziniezakedan egin” esan zion Sepe’k. “Alaz ere barkatuko dizut nik agintzen dizudana eginen ba duzu”.

“Eginen dut, Jauna.”

“Esaiozu Spineloz’i biar goizeko 9-etan onera datorren. Apur baten buruko elduko naiz. Orduan kutxatza ontan ezkuta-raziko duzu eta kutxa giltzatuko. Zer gelditzen egiteko, gero esanen dizut. Nik diodan araura egizu, eta barkatuko dizudala, baita zure errua aaztuko dudala ere zin dagizut.”

Barkamen irabazteagatik arek nai zuena oro eginen zuela itz eman zion emazteak. Gauza guztia agindu izan zitzaion bezelaxe bururatu zuen.

<2> Biaramonean, 9-ak irian, Spineloz eta Sepe elkarrekin zeuden. Orrek, lagunaren emazteari ordu artan ikustera joanen zitzaiola itz emanik, Sepe’ri adio esan zion, urian bazkaltzera deiturik zelakoan.

“Bazkal-ordua ez da oraindik” erantzun zion Sepe’k. “Ez zaiteala ain goizik abia”.⁸

“Goizik izan bear dut an. Bazkaltzera deitu nauenarekin itz egin bearra dut-eta.”

Eta maitalea gana joan zan. Gelan sartu ziren orduko, Sepe zurubian goiti zetorrela entzun zuten. Andreak, izutuarena eginik, kutxan eskuta ledin esan zion maitaleari eta bertan giltzatu zuen. Gero gelatik atera zan.

Sepe eldu zan, eta bazkaria prest zenetz emazteari galdegin zion.

“Bereala prest dukezu” erantzun zion.

“Spineloz oraintxe ikusi dut. Adiskideren batekin bazkaltzen du egun. Aren emaztea baka-rik izanen da. Zoaz, eta gurekin bazkaltzera etorr dadin ezaiozu.”

8. abia”.] *Jatorrizkoan* <abia...>, bi punturekin eta komatxorik gabe.

Andreak, zigorraren beldurrak manu-errez eginik, bertan egin zuen senarrak esan ziona. Spinelez Andreari senarra ez zuela itxo egin bear esan zion eta ain ederki mintzatu zitzaion non berarekin etorri baitzitzaion.

Sepe'k biguin-biguinti atotsi zuen. Bere emazteari sukaldera joan ledin keinu egin zion eta Spinelez'en andreari eskutik eldu-ta, lo-gelara eraman zuan, eta atea itxi.

“Zer? Orrengatik al nauzu bazkaltzera deitu? Ez al duzu maitasun geiago nire senarrarentzat?”

“Asarretu baino len, Andrea,” Sepe'k erantzun zion, kutxari urbilduz eta andreari beti ere eskutik elduz, “esan bear dudana entzun ezazu, otoi. Zure senarra anai bat antzo maitatu dut, eta orai ere maite dut. Arek niretzat duen maitasuna, aldiz, andia⁹ denetz ez dakit. Arengatik ere nire emaztearekin etzaten baita, zurekin etzaten den bezelaxe. Neure begien aurrean egin du. Eta arentzat dudana maitasuna dela-ta, ain zuzen ere, minik egin gabe mendekatu nai natzaio. Ene emaztearekin bere atsegina artu du. Neuk nire atsegina zurekin ar dezadan bidezko da, beraz. Gutu dut eskatzen; onartzen ez ba duzu, ari berari baita zuri ere galestiago gostako zaizuen bidez mendekatzea ez zait zail izanen”.

Andreak bere senarraren salakerian ez zuen sinistu nai. Sepe'k nola jokatu zen azaldu zion, eta orduan sinistu zuen.

“Nire senarrak eragin dizun iraina nitan ordaindu nai diozun ezker, onartzen dut.”

“Zaude beldur gabe” esan zion Sepe'k. “Orrela eginen dut eta gainera, ikus dezakezun bitxi-rik ederrenetakorik bat, gero, nik emanen dizudala itz damazut”.

Ortan, muxu bat ematen dio, kutxa aldera bultzatzen du eta kutxa-gainean bere atsegina artzen du arekin, aal-bezinbatean.

Spinelez'ek gutzia entzun zuen. Aserre zan ler-zorian. Sepe'ren beldurra izan ez ba'litz, aren emazteak bereak eta asto beltzarenak entzungo zituen. Alaz ere, berak zuela lenik Sepe iraindu eta onek adarra gatik adarra eman baizik ez ziola eginten gogoratuz, aserrea baretu zitzaion eta iñoiz baino adiskideago arekin egonen zela erabaki zuen.

Spinelez andreak, kutxa gainetik jatxi eta, agindu izan zitzaion bitxia eskatzen du. Sepe'k gela-atea irikitzen du, eta bere emaztea deitzen.

<3> Onek Spinelez Andreari dirautso:

“Opil baten ordez, ogi bat eman didazu atzera”.

“Emaztea”, esan zion Sepe'k, itza moztuz, “kutxa iriki ezazu”.

Gero, bere senarra ikusteaz arriturik zegoen andreari buruz inguratuz:

“Or duzu”, dio, “itz-eman nizun bitxia.”

9. andia] *Jatorrizkoan* amdia.

Zeinek zuen lotsarik andiena esatea, zail litzake: Spineloz'ek, nola adardundu izan zan eza-guturik ala andreak, esan eta egin zituen guztiak bere senarrak entzun zituela iakinik:

“Ordez orde gaude” Spineloz'ek Sepe'ri esan zion besterik gabe. “Nai ba duk, len bezela alkaturik egonen gaituk. Gure emazteak baino ezer baliosagorik ez dugun ezker, elkarren artean banatu bear genitukela irudi zaitak.”

Sepe'k onartu zuen ori. Lauek adiskide antzo bazkaldu zuten.

Geroztik, andre¹⁰ bakoitzak senar bi euki zituen, eta gizon bakoitzak emazte bi. Bein ere ez zan aien artean liskarrik gertatu.

2.1.2. Poe: “Itzal - Estalitz bat”

ABA-AIB-013-048 signatura du Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan.

Mekanografiaturiko hiru orrialde dira, eta azkenean data dator: “M. tar J. Paris'en 1950”.

Edgar Allan Poe (1809-1849) idazlearen ipuin laburretako baten itzulpena da; “Shadow - A parable” du jatorrizko izena, eta 1850.ean argitaratu zen lehenbizikoz.

Miranderen itzulpena orain arte argitaragabea da.

<1>

Itzal (Estalitz bat)

E.A. Poe'k ingeleraz egiña
Mirand'e tar Jon'ek euskeratua

Bai: ITZALaren ibar-zear nabillen arren¹¹
(Dabid'en Eresia)

Zu, irakurle, oraindik bizidunen artean zaude: ni ordea, idazle au, aspaldi-danik itzalaren errian sarturik nagoke. Ezen, benetan gauz bakanak gertatuko dira, eta eskutapenak yakingo; mende asko, ala ere, igaroko dira, oroigarriok gizonak ikusi baino len. Eta ikustean sineskaitz egongo dirade batzu, bestetzu ezbaian, zenbaitek, aldiz, burnizko idatzeztenak ikurraztu izki otan, gogoeta-gai ugari atzemango ditute.

Urteak izu ekarri zuen eta izua bainoagoko sendipenak, lur ontan izengabeak. Ezen ikur ta mirari aunitz izan ziran eta, toki denetan, izurriteak zabaldurik zituen bere ego beltzak itxas-legorren gainean. Zeruek zoritxar iragartzen zutela ez zeuden jakin gabe, aatik, izarren berri zekitenak. Enetzat, besteen artean, elendar Oinos au agiri zan orain zala eldu zazpi eun eta larogei t'amalau urteroko aldizkotzea, Yupiter izarbela Saturn latzaren uztai gorriarekin alkar-

10. andre] *Jatorrizkoan* amdre.

11. arren] *jatorrizkoan* aaren.

turik dagola Aries'en sarreran. Ortzearen tankera bereziari oartu zekioken —okerrean zearo ez ba'nago— ez bakarrik lurraren boboril ikugaitsuan, baita gizaldiaren gogo, irudimen, oldozpenean ere. (Ikugaitsu - Ekhaitsu)

Kio'ko ardo-gorri pegar zenbait edaten, gau batez, zazpi lagun yauretxe bateko ormen barruan Ptolomais deritzan uri illunean ginauden. Eta gure gelak ez zuen beste sarrerarik burnigorritzko ate gora bat baizik. Korinnos arotzak landu zuen ate ori ta berdingabeko lana zala-ko, barrutik estekatzen zan. Bestalde, areto¹² itsean orma-oial beltz batzuek gure ikusmenetik aldentzen zituten ilargi, izar laru, gizon-gabeko kaleak.

<2> Gaitzaren susmoa t'oroipena, ordea, ezin orrek aldendu. Ba'ziran gauz batzu gure inguruan, gutartean argi aldarrikatu ezin ditzakedanak —gauz gaitsu ta gotutsezkoak— sargori, gorain, urduri, eta guzion gainetik, zaindunek ezagutu oi duten egoera lazgarri ura, menak minki bizi ta ernai diralarik, oldoz-indarrak lo dauden artean. Zama aztun batek estutzen ginduen. Estutzen zituen ere gure oin-besoak, gelako tresnak, gure edontziak; gauzek oro akiturik (erbail) zautzan, ezindurik; gauzak oro, gure oturuntza argitzen zuten zazpi krexalluen garrak kendu ezkeru (ezik). Argi-marra lirain antzean gora igoaz, erretzen zeuden zuri-zuritsu eta geld; exeririk geunden zubeltz-mai biribil gainean errainuak eraldu izpilluan, batzarkide (maikide) bakoitzak beraren arpegi zurbilla ta bere lagunuen begi makurtu¹³ kezkatuak ikusten zituten.

Alaz ere, par egiten genuen, alai gure eran —zoroen eran, ots— Anakereon'en abestiak abestuz —abesti zoroak— asko edanez ere bai, ardo gorriak odolaz oroit-erazi arren. Ezen gure gelak beste maizter bat ere¹⁴ ba'zuen, Zoilus gaztea zan ura. Illik zetzan, luze-luze, izaraturik, tokiko iratxo zaindari, ta gaizkin antzo; ondikotz! ez zan gurekin alaitzen; bakarrik aren aurpegiak, kutxuak zimeldurik, eta aren begiek, Erioak izurri-sua aietan erdizka baizik ez iraungirik, illek ilkizun jolaseta duketen arduraz geure jolaseta arduraturik antz zematzen. Ni ordea, Oinos izandua neri begira senditu arren, aren somiña ez nabaitzeko alegintzen nintzan, ta zubeltz izpillu sakon barruan tink begiratur, Teios'en semearen abestiak abesten nituen abots zoli ozenez. Emeki-emeki, aatik, gelditu ziran nere abestiok eta oiartzuna, gelako orma-oial beltzetan galtzarekin, ezagugaitz, ixiltzeraino.

Eta ona non zan aurreratu, abesti-otsek igesbide zituten oial beltz oien artetik, itzal illun mugatu gabe bat —illargi apalak gizon baten soinetik itxuratu lezaken itzala bezelako: ez zan ordea ez gizon baten, ez <3> Jainko baten, ezta ere edozein gauz ezagunaren itzala.¹⁵ Apur bat kordoka egon, eta gelako orma-oialetan, azkenekotz gelditu zan burnigorritzko atearen gainalde-gain, agerre osoan. Itzala, aldiz, lañotsu, itxuragabe, mugatugabea zenuen eta ez zan gizon baten, ez Jainko baten itzala —ez Elade'ko Yainko batena, ez Kaldea'ko Yainko batena, ez aigi-

12. areto] *jatorrizkoan* areto-.

13. makurtu] *jatorrizkoan* mukurtu.

14. ere] *jatorrizkoan* er.

15. itzala] *ondoren ezabatuta*: bezelako.

toar yainkoren batena. Itzala burnigorritzko atari gainean jarri zan. Atalburupean, mugitzeke, itzik esan gabe, xoilki an gelditu eta zegon. Eta itzala egaritzen zuen atea, ongi oroit ba'naiz, Zoilus gazte izaratuaren oinen aurka. Gu berriz, zazpi batzarkideok, itzala oialen artetik zetorrela ikusi bai'genuen, ez giñan berari so egitera ausartzen bainan, begiak makurturik, zubeltxezko ixpillu sakon barruan tink begiratzuz ginauden. Azkenean nik Oinos'ek, apal-mintzo, itzalari galdegin nion nor ta nongoa zan. Eta itzalak erantzun: "ITZAL naiz, Ptolomais'ko il-lezean alboan naiz egoiten, Karon'en ibai ustela muga duten Helusion'go zelai beltz aien ur-urrean".

Orduan gu zazpiok, alkitik jauzi egiñik izuaren izuz, ikara, dardara, arrituta egon giñan, ezen itzalaren mintzoa, izaki-elementiarena baino, eta izkiñik izkin goraberatuz, gure belarriak jotzen zituen itunki, milla ta mil'adiskide izanduen abots ezagun, ondo gogoratuez.

M. tar J.
Paris'en 1950

2.1.3. Hemingway: "Lehoin zintzoa"

ABA-AIB-013-063 signatura du Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan.

Andima Ibinagabeitiaren bilduman, lan honen hiru ale bildu dira: lehenengoa Jon Mirandek eskuz idatzia (orri bakarra, bi aldeetatik idatzia), bigarrena ziur aski Andima Ibinagabeitiak mekanografiatua (bi orri), eta hirugarrena Ibinagabeitiak mekanografiatuaren ikatz-kopia (Gotzon Egaña "Antxeta" idazleak Azkue Bibliotekari 2004. urtean eginiko dohaintza). Eskuizkribuan oinarrituta egin dut nire edizioa, baina bertso mekanografiatuan diren aldaketa txikien berri ere eman dut. Esanguratsua da, alde horretatik, Ibinagabeitiak askotan zertan huts egiten duen ikustea, hain zuzen hitz arrotzetan: *Uandoroboak* > *Uandoroloak*, *masai* > *maseri*, *tagliatelle* > *tagliabelle*.

Ernest Hemingwayk (1899-1961) *Holiday* aldizkarian argitaratu zuen, 1951ko martxoan, *The good lion* izeneko ipuin ezaguna, eta gero *The Compleat Short Stories of Ernest Hemingway: The Finca Vigía Edition* (1987) bilduman berrargitaratu zen. Miranderen itzulpena orain arte argitaragabea zen, nik dakidala.

<1>

Lehoin zintzoa

Ernest Hemingway¹⁶

Behin ba zan lehoin bat, bertze lehoin guztiekin batean Afrikan bizi zena. Bertze lehoinak gaizto ziran denak eta egunkal zebra, orotariko ihizi eta antilopa-mota oro iaten zuten. Bai eta

16. Ernest Hemingway] *mekanografiatuan*: Ernest Hemingway egile. Mirandetar Jon itzulari.

gizaki ere iaten zuten batzuetan lehoin gaizto heiek. Suahili, Umbulu eta Uandoroboak¹⁷ iaten zituten eta, oroz lehen, Hindu saltzaileak gozatzen zituten. Hindu¹⁸ saltzaileok oro bazterrik gabe gizen izaiki, gozoki bat dira lehoinentzat.

Hain zintzo zelakotz gure maithagoa dagokon lehoin harek, ordea, bizkarr-gainean hegaleli bat ba zituen. Eta bizkarr-gaineko hegaleli hoietaz horniturik zelakotz, bertze lehoinek isekagiten zuten haren lephotik.

“Bainan so’gitzue dituen hegaleli hoik!” oihu egiten zuten eta gero irri-karkailaz ari ziran orroika.¹⁹

“Ikhusazue zer iaten duen!” isekatzuz²⁰ erraiten zuten, ezen lehoin zintzoak, hain zintzo izaiki, pasta eta scampi baizik ez zuen iaten.

Lehoin gaiztoak orroika egoiten ziran irri-karkailaz eta bertze Hindu saltzailearen²¹ bat iaten zuten, haren odola lehoin-andreek²² edaten zutela, dembora berean²³ xlap-xfap-xfap mihiarekin eginez, gathu handi batzu izan ba lira bezala. Soilik²⁴ lehoin zintzoa gatik marrakaz edo orroika²⁵ irri egiteko gelditzen ziran,²⁶ edo-ta haren hegaletaz murmuratzeko. Lehoin hagitz gaizto eta arruntak ziraden egiazki.

Bainan lehoin zintzoa horr zegoen iarririk,²⁷ hegaleli plegatzen zituen eta Negroni edo Americano bat eskatzen zuen gizabidetsukiro, eta hoik edaten zituen bethi Hindu saltzaileen odol²⁸ orde. Behin ukhatu zuen zortzi masai-idi²⁹ iatea;³⁰ tagliatelle³¹ puska bat baizik ez zuen ian eta vaso bat pomodoro edan hartarik³² landa.

Horrek³³ heuragi gaindiarazo zituen lehoin³⁴ gaizkinduak eta lehoin-emeetarik batek, guztietarik gaizkinduena eta bethi sudurpekoetan Hindu saltzailearen³⁵ odol zuenik, muthurra

17. Uandoroboak] *mekanografiatuan* Uandoroloak.

18. Hindu] *eskuizkribuan aurretik So- ezabatu du.*

19. orroika] *eskuizkribuan aurretik koma ezabatu du.*

20. isekatzuz] *eskuizkribuan zerbait ezabatu ondoren lerroartean idatzita.*

21. saltzailearen] *eskuizkribuan saltzaile idatzi du lehenengo, eta lerroartean erantsi du -ren..*

22. lehoin-andreek] *eskuizkribuan heien emazteek ezabatu ondoren lerroartean idatzita.*

23. berean] *mekanografiatuan* bereak, *lehenengo alean (ez ikatz-kopian) boligrafoz zuzenduta (-n).*

24. Soilik] *eskuizkribuan lerroartean idatzita.*

25. orroika] *mekanografiatuan* erroika.

26. ziran] *eskuizkribuan hitzaren ondoren zerbait ezabatu du (bakarrik izan daiteke).*

27. iarririk] *mekanografiatuan* iarririk.

28. odol] *eskuizkribuan* odolaren *idatzi du lehenengo; mekanografiatuan* odolaren.

29. masai-idi] *mekanografiatuan* maseri-idi.

30. iatea] *eskuizkribuan* ondoren eta *ezabatu du.*

31. tagliatelle] *mekanografiatuan* tagliabelle.

32. hartarik] *eskuizkribuan aurretik koma ezabatu du.*

33. Horrek] *eskuizkribuan* ezkerreko alboan *erantsita, eta hurrengo hitzaren maiuskularen gainean minuskula idatzita.*

34. lehoin] *eskuizkribuan aurretik horrek ezabatu du (perpauz-hasierara eramateko).*

35. saltzailearen] *mekanografiatuan* saltzailearen.

belharrean³⁶ txukatu arren:³⁷ “Bainan azkenean³⁸ nor³⁹ haiz ustekeria ukhaiteko gu baino anhitzez hobe haizela? Nongoa haiz bada, lehoin pasti-iale haizen bezalako? Eta⁴⁰ zer duk hemen egiteko?” marrakaz erran zeraukon, bertze lehoinak orroika iarri zirelarik, irrikik egin gabe orduan.

“Nire aita hiri batetan bizi da; zeinu-torre azpian dago milaka urzori beheiti begira, guztiak haren eskupeko direnak. Hegaldatzen direnean, ibai baten oldarra iduriko hotsa entzuten da. Nire aitaren hirian iauregi gehiago ba da ezen-ez Afrika guzti-orotan,⁴¹ eta brontzezko laur zal-di handi dagoz haren aitzinean, zango bedera aidean⁴² eraikirik, haren beldurr⁴³ direlakotz.

Nire⁴⁴ aitaren hirian gizonak oinka edo ontzietan ibiltzen dira, eta zaldi normalik ez da hirian sartzen, nire aitaren beldurrez.”

“Hire aita zithal bat zukan” erran zuen lehoin-eme gaizkinduak, muthurra milikatuz.

<2> “Gezurri bat haiz” gaineratu zuen lehoin gaiztoetarik batek, “horrelako hiririk ez baita.”⁴⁵

“Emadak Hindu-saltzaile-puska bat” erran zuen bertze lehoin⁴⁶ txit gaizto batek, “masai-idiki⁴⁷ haur oraino gorrdinegi zaitak...”

“Gezurri arrunt bat haiz eta⁴⁸ zithal- seme bat” erran zuen lehoin-eme guztietako gaizkinduenak, “eta orai, nik uste, erhanen haut eta ianen, hire hegalekin batean.”

Orduan lehoin zintzoa anhitz beldurru zan, ikhusiz haren begi gorriak eta nola buzta-na goiti behera zerabilen, eta sudurrpekoetan⁴⁹ zedukan odol gogorrtua; bai eta⁵⁰ haren hatsa

36. belharrean] *mekanografiatuan* belarrean.

37. arren:] *eskuizkribuan bi puntuen aurretik* erran zeraukon *ezabatu du*.

38. azkenean] *mekanografiatuan* azkanean.

39. nor] *eskuizkribuan zerbait ezabatu ondoren lerroartean idatzita*.

40. Eta] *eskuizkribuan aurretik zerbait ezabatu du*.

41. guzti-orotan] *mekanografiatuan* guzti orotan.

42. aidean] *eskuizkribuan aurretik era- ezabatu du*.

43. beldurr] *mekanografiatuan* beldur.

44. Nire] *mekanografiatuan* “Nire.

45. ez baita] *mekanografiatuan* ezpaita.

46. lehoin] *mekanografiatuan* batek ondoren *ezabatuta*.

47. masai-idiki] *masi-idiki eskuizkribuan eta mekanografiatuan*.

48. eta] *eskuizkribuan aurretik koma ezabatu du; mekanografiatuan hor da*.

49. sudurrpekoetan] *mekanografiatuan* susdurpekoetan.

50. bai eta] *eskuizkribuan eta ezabatu ondoren lerroartean idatzita*.

usnatzen⁵¹ zuen, nardagarria, nehoiz⁵² ez baitzituen⁵³ hortzak garbitzen.⁵⁴ Oraino Hindu-saltzaille-puskak⁵⁵ ba zituen⁵⁶ hatzaparretan lothurik.

“Ez nazanala erhan”, erran zeraukon lehoi zintzoak, “nire aita itzal handiko izan dun bethi, eta erasten dudan guztia egia dun”.

Hortantxe⁵⁷ lehoi-eme tzarrak⁵⁸ gainerat⁵⁹ iauzi egin zeraukon.⁶⁰ Baiñan aidean igan zan hegalez⁶¹ eta lehoi gaiztoen andanari inguru bat eman zeraukon, oro goiti begira eta orroika ari zirelarik. Beheiti so egin zuen, eta gogoan iragan: “Zer⁶² lehoi basak diren hoik!”⁶³

Bertze inguru bat eman zuen, areago⁶⁴ orroika ari litezentzat. Gero iautsi zan, lehoi-eme gaiztoari begietara so egin ahal ukhaitekotz. Atzeko zangoetan zutitu zan hura, lehoi zintzoa hatzeman nahiz. Baina izuri zuen. “Adiós” erran zeraukon, mundutarr lehoi antzo akats gabeko espainaraz.⁶⁵ “Au revoir” hots egin⁶⁶ zerauen bertzeri, frantzes⁶⁷ eredugarrian.

Guztiak orroika eta marrakaz oihu egin zeraukoten Afrikako lehoi-hizkalkiz.⁶⁸ Orduan⁶⁹ lehoi zintzoa aidean oboak eginki⁷⁰ gero-ta gorago iganez, Venizia⁷¹ aldera ioan⁷² zan. Piazzan erautsi zan eta denak⁷³ boztu ziran haren birrihustez. Aphurr bat iaso zan maxela⁷⁴ banan aitari pot emaitetkotz, eta ikhusi zuen zaldiek bethi ere zango bedera eraikitzen zutela eta basi-

51. usnatzen] *mekanografiatuan* usmatzen.

52. nehoiz] *eskuizkribuan* behin ere ezabatu ondoren lerroartean idatzita.

53. baitzituen] *mekanografiatuan* baizituen.

54. garbitzen] *mekanografiatuan* garbitzen.

55. Hindu-saltzaille-puskak] *eskuizkribuan* Hindu-saltzaille-puskarik idatzi du lehenengo; *mekanografiatuan* hori dago.

56. zituen] *eskuizkribuan* zegoen haren ezabatu ondoren lerroartean idatzita.

57. Hortantxe] *mekanografiatuan* Horbantxe.

58. tzarrak] *mekanografiatuan* zaharrak aurretik ezabatuta.

59. gainerat] *eskuizkribuan* aurretik haren ezabatu du.

60. zeraukon] *eskuizkribuan* zuen ezabatu ondoren lerroartean idatzita.

61. hegalez] *eskuizkribuan* hegalekin (?) idatzi du lehenengo.

62. “Zer] *mekanografiatuan* boligrafoz erantsita komatxoak.

63. hoik!"] *mekanografiatuan* hoik, harridura-markarik gabe eta boligrafoz erantsita komatxoak.

64. areago] *eskuizkribuan* are idatzi du lehenengo.

65. espainaraz] *mekanografiatuan* espainaraz.

66. hots egin] *eskuizkribuan* erran ezabatu ondoren lerroartean idatzita.

67. frantzes] *mekanografiatuan* frantsez.

68. lehoi-hizkalkiz] *mekanografiatuan* lehoihizkalkiz

69. Orduan] *eskuizkribuan* Gero ezabatu ondoren lerroartean idatzita.

70. aidean oboak eginki] *eskuizkribuan* lerroartean idatzita.

71. Venizia] *eskuizkribuan* aurretik sei hitz ezabatu ditu.

72. ioan] *eskuizkribuan* aurretik zerbait ezabatu du.

73. denak] *eskuizkribuan* aurretik zerbait ezabatu du.

74. maxela] *eskuizkribuan* aurretik zerbait ezabatu du.

lika saboin-burbul⁷⁵ bat baino ederrago zegoela. Kampanila⁷⁶ bere thokian zegoen eta urzoak ohantzetara abiatzen⁷⁷ ziran afaritarat.

“Nola zan Afrikan?” aitak galdegin zeraukon.

“Anhitz⁷⁸ basa” ihardetsi zuen lehoin zintzoak.

“Orai gau-arrgitze⁷⁹ ba diagu hemen” erran zuen⁸⁰ aitak.

“Bai, oharrtu natzaio” erantzun zeraukon lehoin zintzoak, seme prestu bati dagokonez.

“Begiak nekharazten⁸¹ derauzkiat⁸² pitin bat,” salhatu zeraukon aitak. “Norat hoa orai, seme?”

“Harrys Bar’erat”.⁸³

“Goraintzi nire partez Cipriani-ri,⁸⁴ eta errok egun batez iraganen⁸⁵ natzaiola zorren ordaintzera.”

“Bai, aita” erran zuen lehoin zintzoak eta hegaldaturik, lasterr lurr harritu zuen eta Harrys Bar-erat laur-oinka⁸⁶ ioan zan.

Cipriani-baithan ezer ez zan aldatu. Bere adiskide guztiak han zituen; bainan bera aldatu zan ahur bat Afrikako egonaldiaz.

“Negroni⁸⁷ bat, Signor Barone?” Cipriani⁸⁸ Jaunak galdegin zeraukon.

Bainan lehoin zintzoa Afrikatikan etxeratu zan hegalez eta Afrikak aldatuxe⁸⁹ zuen.

“Hindu-saltzaile-ophilik ba duzua?” Ciprianiri⁹⁰ galdegin zeraukon.

“Ez, bainan adelaraz⁹¹ dezaket”.

75. saboin-burbul] *eskuizkribuan* salboin-burbul.

76. Kampanila] *eskuizkribuan* zerbait ezabatu ondoren *lerroartean* idatzita.

77. abiatzen] *eskuizkribuan* aurretik zerbait ezabatu du.

78. Anhitz] *mekanografiatuan* Hanitz.

79. gau-arrgitze] *mekanografiatuan* gau-argitze.

80. zuen] *eskuizkribuan* zeraukon ezabatu ondoren *lerroartean* idatzita.

81. nekharazten] *eskuizkribuan* aurretik der- ezabatu du.

82. derauzkiat] *eskuizkribuan* hitzaren bukaeran zerbait ezabatu du.

83. “Harrys Bar’erat”.] *eskuizkribuan* esaldiaren ondoren zerbait ezabatu du.

84. Cipriani-ri] *mekanografiatuan* Cipriani’ri.

85. iraganen] *eskuizkribuan* aurretik ioanen ezabatu du.

86. lau-oinka] *eskuizkribuan* aurretik ioan z- ezabatu du.

87. Negroni] *mekanografiatuan* Negorni.

88. Cipriani] *eskuizkribuan* aurretik gald- ezabatu du.

89. aldatuxe] *eskuizkribuan* hitzaren hasieran zerbait ezabatu du (bir- izan daiteke); -xe geroago gehitua da.

90. Ciprianiri] *eskuizkribuan* Cipriani-ri idatzi du lehenengo.

91. adelaraz] *mekanografiatuan* adelaraz.

“Adelarazten⁹² duzun artean, Martini idorr-idorr⁹³ bat emadazu”. Eta gaineratu zuen: “Gordon Gin-ekin.”

“Ongi,” erran zuen Ciprianik, “ederrki.”⁹⁴

Gero lehoin zintzoak inguru-so bat eman zuen, zezaguzkien⁹⁵ gende erazko guztiei aurrpegirat begiratu⁹⁶. Eta⁹⁷ bere⁹⁸ etxen⁹⁹ zegoela, bainan ibilkatu zela¹⁰⁰ ere garrbi ezagutu zuen. Zorion handitan zegoen.

(Mirande tarr Ionek itzulirik)¹⁰¹

2.1.4. Clutsam: “Ene kutuntxu”

ABA-AIB-012-021 signatura du Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan.

Orrialde bakarra da, mekanografiatua. Jatorrizkoari buruzko datuak albo batean idatzi ditu eskuz eta lapitzez norbaitek.

George H. Clutsam (1866-1951) piano-jole australiarrak idatzi zuen kantu hau, 1897a baino lehen. Oso ospetsu eta are herrikoi bihurtu zen.

Orain arte ez da argitaratu, nik dakidala.

Ene kutuntxu

Aingerutxo,¹⁰² begi beltz, ille¹⁰³ gorri
Zeruan izartxoak
Ñirñirka¹⁰⁴ dirdari.
Ene lili, mami gorrizko lili
Aitatxok an soroan (lanean)
Izerdia ugari.
Lo lo lo lo egin.

92. adelarazten] *mekanografiatuan* adelarazten.

93. idorr-idorr] *mekanografiatuan* idr-idorr.

94. ederrki] *mekanografiatuan* ederki.

95. zezaguzkien] *eskuizkribuan aurretik* eta *ezabatu du*.

96. begiratu] *eskuizkribuan ondoren zerbait ezabatu du*.

97. Eta] *ez dago mekanografiatuan*.

98. bere] *eskuizkribuan aurretik garbi ezagutu zuen ezabatu du*.

99. etxen] *mekanografiatuan* etxean.

100. zela] *mekanografiatuan* zala.

101. (Mirande tarr Ionek itzulirik)] *ez dago mekanografiatuan*.

102. Aingerutxo] *jatorrizkoan* Aingegutxo.

103. beltz, ille] *jatorrizkoan* beltz-ille.

104. Ñirñirka] *jatorrizkoan* Nirñirka.

Illargia dator bera,
 Baita ere izartxoak,
 Zukin jolasera.
 Lo lo lo lo lo egin
 Amatxoren besoetan
 Amets irriparretan
 Lo lo lo lo lo egin.
 Aingerutxo, begi beltz, ille¹⁰⁵ gorri
 Goxoa emango egiten
 ba dezu lo.
 Ene lili, mami gorrizko lili
 Txita egapean
 Zu nere magalean.
 Lo lo lo lo lo egin.
 Illargia dator bera,
 Baita ere izartxoak,
 Zukin jolasera.
 Lo lo lo lo lo egin
 Amatxoren besoetan
 Amets irriparretan
 Lo lo lo lo lo egin...

Original: "Ma curly-headed babby. Plantation song". G.H. Clutsam.¹⁰⁶

2.1.5. Baudelaire: "Mozkor zaite"

ABA-AIB-013-070 signatura du Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan.

Gotzon Egaña "Antxeta" idazleak Azkue Bibliotekari 2004. urtean Andima Ibinaga-beitiaren beste paper batzuekin batera dohaintzan emaniko papera da (orrialde bakarra), mekanografiatua, dirudienez ikatz-kopia.

Charles Baudelaire (1821-1867) poeta hil ondoren argitaratu zen, 1869.ean, *Petits Poèmes en prose. Le Spleen de Paris* bilduma. Guztira berrogeita hamar lan bildu ziren liburu horretan, gehienak 1855etik 1864ra bitartean idatziak, eta garaiko egunkari eta aldizkarietan banaka argitaratuak. Bilduma horretako hogeita hamairugarrena da Mirandek euskaratu zuena: "Enivrez-vous".

Itzulpen argitaragabea da.

105. beltz, ille] *jatorrizkoan* beltz-ille.

106. *Jatorrizkoari buruzko erreferentzia, eskuz, ezkerreko alboan, bertikalean idatzita dago.*

Mozkor zaite

Beti mozkor izan bear da. Ortan datza oro, arlo bakarra dezu. Soñegiak austen-ta ukur-eraz-ten zaituen aldi-azta izugarriari ez oartzeko, tai-gabe mozkortu bear dezu.

Zertaz ordea? Ardoz, olertiz edo onbidez, zure naitara. Bañan mozkor zaite.

Eta zenbait aldiz, jauregi bateko zurubi-mailetan, arroil baten belar musker-gañean, zure gela bakar itunean, baldin esnatzen ba'zera, mozkorra dagoneko gutxiturik edo joanik, galde zaiozu aizeari, uñari, izarrari, txoriari, orenari, itzurtzen dan guziari, auenka dagoen orori, biribilka doan danari, itz-egiten duen edozeri, galde zer ordu dan; baita aizeak, uñak, izarrak txoriak, orenak, erantzungo dizute: "Mozkortzeko ordua da!" Aldiaren jopu oñeztatuak ez izateko, mozkor zaite tai-gabe! Ardoz, olertiz edo onbidez, zure naitara."

Charles¹⁰⁷ Baudelaire.

"Itz-lauzko elerkitxo" etatik Mirande'tar Jon'ek itzulia.

2.2. Zati bat argitaraturik duen itzulpena

2.2.1. Nietzsche: "Orrela mintzo zan Zarathustra"

ABA-AIB-013-093 signatura du Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan.

Guztira zazpi orri dira, idatzitako hamabi orrialde:

0. Izenburuak.

Orri bat (<0> orrialdea).

1. "Emakumetxo zaar ta gazteetaz".

Bi orri (<1> - <3> orrialdeak)

2. "Guda ta gudarietaz".

Orri bat (<4> - <5> orrialdeak)

3. "Urkoaren ganako maitasunaz".

Orri bat (<6> - <7> orrialdeak)

4. "Naizko eriotzaz".

Bi orri (<8> - <11> orrialdeak)

Lehenengo orrialdea, izenburuak biltzen dituen aurkezpen-modukoa, makinaz idatzita dago, ziur asko Andima Ibinagabeitiak mekanografiatuta, eta gainerakoa eskuz,

107. Charles] *jatorrizkoan* Charle.

Jon Miranderen eskuz hain zuzen; zuzenketa gehienak ere esku berak eginak dira, eta lehenengo idazketa-prozesuan eginak, testuaren tinta bera erabili baita zuzenketetan ere; baina badira beste tinta batez eginiko zuzenketa gutxi batzuk, ziur aski Ibinaga-beitiarenak.

Friedrich Nietzsche filosofo alemaniarraren *Also sprach Zarathustra. Ein Buch für Alle und Keinen* (1883-1885) liburu ezagunaren lehenengo atalean bilduriko 22 solasetako lau euskaratu zituen Mirandek:

1. “Emakumetxo zaar ta gazteetaz” < “Von alten und jungen Weiblein”, 18. solasa.
2. “Guda ta gudarietaz” < “Vom Krieg und Kriegsvolke”, 10. solasa.
3. “Urkoaren ganako maitasunaz” < “Von der Nächstenliebe”, 16. solasa.
4. “Naizko eriotzaz” < “Vom freien Tode”, 21. solasa.

Horietako bat, “Emakumetxo zaar ta gazteetaz” argitaratu zuen Patri Urkizuk 1997an, *Jon Mirande Orhoituz (1925-1972)* liburuan. Urkizuk ez du zehaztu nondik hartu duen testua, baina ziurrenik nik erabili dudana eskuizkribu bera erabili zuen; halere, zenbait lekutan irakurketa desberdina proposatzen dudanez, osorik berrargitaratzea erabaki dut.

<0>

Nietzsche

ALSO SPRACH ZARATHUSTRA
ORRELA MINTZO ZAN ZARATHUSTRA

Mirande'tar Jonek doitxeratik euskeratua.

- 1.- *Emakumetxo zaar ta gazteetaz.*
- 2.- *Guda ta gudarietaz.*
- 3.- *Urkoaren ganako maitasunaz.*
- 4.- *Naizko eriotzaz.*

<1>

Emakumetxo zaar ta gazteetaz

“Zergatik ba-oa orrela ebaska illunabarrean, Zarathustra? Eta zer dek ainbat¹⁰⁸ arduraz mantar-pean ezkutatzen?

108. ainbat] *hasieran ain idatzi du; ondoren gebitu dio* -bat.

Altxor bat dea, iri emandakoa? Jayo izan zaikan aurtxo bat ote? Ala orain lapurketan ba-abil eor, gaiztoen adixkide ori?” —

Egitan, anai! mintzatu zan Zarathustra, altxor bat dek, niri emandakoa! egitxo bat diat eramaki.

Ume gazte bat bezin biurria dek ordea, ta ez ba’diot aoa itxirik eusten, oiuz asiko dek goraki.

Bide negielarik gaur, bakar, eguzkiaren sar-orduan, atso batekin buruz-buru egin diat, neu-re biotzari onela mintzatu bai’zaio:

“Askotan Zarathustra’k itz-egin diguk guri ere, emakumeai, bañan iñoiz ez diguk itz-egin emakumeaz.

Eta erantzun nioan “gizonai bakarrik zaien itz-egin bear emakumeaz”.

“Niri ere mintza akit emakumeaz, esan zian¹⁰⁹ aski zaarra nauk gero bereala aazteko”.

Atsoaren eskaera nik onartu-ta onela itz-egin nioan:

Emakumean oro adikaitz da ta adikaitz orrek giltz bat ba-du: amagoa da deitzen.

Emakumearentzat gizona elbide bat da: aurra da beti elburua. Zer da emakumea, aldiz, gizonarentzat?

Benetako gizonak bi gauz¹¹⁰ nai ditu: galurren ta kirol. Orrengatik du emakumea nai, kirol-gairik galbidetsuena bai’du.

Gizona gudarako azi bear da ta emakumea <2> gudariaren atsegiñerako: beste guztia zoro-keria da.

Igali geza-gezegiak gudariak ez ditu maite. Orrengatik du maite emakumea; gazi da beti emakumerik gezena ere.

Emakumeak aurrak ulertzen ditu gizon batek baño obekiago, bañan gizona aurrago da emakumea baño.

Benetako gizona-gan aur bat dago ezkutaturik,¹¹¹ jostatu naia.¹¹² Ea, emakumeok, idoro zadatazute gizona-baitan gorderik dagoen aurra!

Kirol-gai bat biz emakumea, aratz ta eder, arri-bitxiaren antzeko, oraindik etorkizun dan ludi baten onbideek iñarretaturik.

Izar baten leiñuruak dirdira beza zuen maitasunean! Zuen itxaropena biz: “Ai’neza Gizurena sort!”

109. zian] *hasieran zikan idatzi du; ondoren -k- tatzatu du.*

110. gauz] *zer ezabatu ondoren lerroartean idatzita.*

111. *bi puntu] koma ezabatu ondoren haren gainean idatzita.*

112. naia] *bear du ezabatu ondoren lerroartean idatzita.*

Adore izan bedi zuen maitasunean! Maitasunak eragiñik, oldart zakizkiote beldur sartzen dizuenari!

Zuen maitasunean biz zuen zindotasuna!¹¹³ Bestalde, gutxi du emakumeak zindotasun-gañean¹¹⁴ ulertzen. Au biz, berriz, zuen zindotasuna: beti geiago maitatu, maitatuak zeraten baño ta iñoiz ere ez bigarrenak izan.

Emakume maiteminduna-gatik beldur euki beza gizonak: ez¹¹⁵ da izutzen duen burues-keiñik ta beste guztia ezertarako¹¹⁶ ez zaio.

Emakume gorrotoduna-gatik beldur euki beza gizonak: ezen gizona biotz-biotzean gaiztoa da soilki,¹¹⁷ emakumea ordea tzarra da.

Nor du emakumeak iguiñenik? — Onela itz-egin zion burniak burni-biziari: “i aut iguiñenik, erakartzen dekalako ta ez aizelako, aldiz, aski indartsua eusteko”.

<3> Gizonaren zoriona da: *nai diñat*, esatea. Emakumearena:¹¹⁸ *nai dik*.¹¹⁹

“Ona, orain bertan da ludia osotu!” — orrela deritzaio edozein emakumeri, maitearen maitez mentzen dalarik.

Mendu bearra bai’da emakumea,¹²⁰ bere azalari¹²¹ sakontasun emateko. Azaleko da emakumearen gogoa, ur-geldo baten gaiñalde igikor, ekaitzua lez.

Gizonaren gogoa, berriz, sakon¹²² da, lurpeko leizetan orruz doan uaitz bat iduri: aren indarra usnatzen du emakumeak bañan ez aditzen. —

Orduan iñardetsi zidaian atsoak: “Gauz atseginkorrik aunitz esan dik Zarathustra’k, batez ere ortarako aski gazte diranentzat.

Aundi dek, gutxi ditik Zarathustra’k emakumeak ezagutzen t’alaz ere bidez mintzo dek aietaz. Emakume-gaian eziñezkorik ez dalako dea edo?

Orain, esker-ordaiñez, egitxo bat ar zak! Aski zaarra bai’naiz bera esateko!

Biribilka zak ta aoa itxirik eutsi zaiok: bestela oiuz asiko dek goraki, egitxo ori.”

113. zindotasuna] *aurretik aintza ezabatu du.*

114. zindotasun-gañean] *beste kolore eta idazkera batekin idatzita: az (obe), hots zindotasunaz. Ibinagabeitiaren zuzenketa bide da.*

115. ez] *aurretik ezen gizona ezabatu du.*

116. ezertarako] *aurretik ez- ezabatu du.*

117. gaiztoa da soilki] *gaiztoa baizik ez da idatzi du lehenengo; gero, da-ren aurreko baizik ez ezabatu ondoren, soilki lerroartean idatzi du.*

118. Emakumearena] *hitzaren bukaeran zegoen hizkia (k izan daiteke) ezabatuta dago.*

119. dik] *beste kolore eta idazkera batekin dik parentesi artean sartuta, eta ondoan idatzita: diat. Ibinagabeitiaren zuzenketa bide da.*

120. emakumea] *hitzaren bukaeran zegoen hizkia (k izan daiteke) ezabatuta dago.*

121. azalari] *aurretik s- ezabatu du.*

122. sakon] *sakona idatzi du lehenengo, eta gero -a ezabatu du.*

“Emadan, emakume, ire egitxoa! esan nian. Eta onela mintzatu zuan atsoa:

“Andreen gana ba-oa? Zigorra ez aztu! —”

Orrela mintzo zan Zarathustra.

“Also sprach Zarathustra” I

<4>

Guda ta gudarietaz

Gure etsai onenen gandik ez degu azkespenik nai, ezta barru-barrutik maite ditugunen gandik ere. Utzi beraz egia dasazuedan!

Nire gudari-anaio! Barru-barrutik maite zaituztet, zuen kideko naiz ta nintzan. Baita zuen etsai onena naiz ere. Utzi beraz egia dasazuedan!

Ba-dakit zer gorroto, zer bekaizkeri dauden zuen biotzean. Ez zerate naikoa aundi gorroto ta bekaizkeriak ez ezagutzeko. Naikoa aundi izan, bada, aien lotsa ez izateko!

Eta Ezagutzaren deunak ezin izan zaiteztekeen¹²³ ezkerro, izan beintzat aren gudariak. Dalako deuntasunaren¹²⁴ lagun ta aurre-ibildariak, ots.

Soldado asko ikusten det: ai'neza gudari asko ikus! “Era-bateko” da deitzen beren soñekoa: ai'ledi ez era-bateko izan arekin estaltzen dutena!

Onela izan zakizkidate, begia beti etsai baten billa - zeuen etsaiaren. Baita zuetatik batzuetan erra sortzen da leen soaz.

Zeuen etsaia billatu, zeuen guda egin zeuen asmoen alde. Eta zuen asmoa mendurik ba'datza, alaz ere bearko du orrengatik zuen zindasanak garaipen-abestu!

Gentza maita zazute guda berritarako bide bezela. Baita gentza laburra luzea bañoago.

Lana ez dizuet aolkatzen, bai ordea guduka. Gentza ez dizuet aolkatzen, bai ordea garaitza. Guduka bat biz zuen lana, garaitz bat biz zuen gentza.

Uztai bat ta geziak dituena baizik ez dagoke ixillik, geldirik: bestela¹²⁵ ba-da eztabaida ta marmuri. Garaitz bat biz zuen gentza!

Auzi onak duela guda ere deuntzen diozute? Nik diozuet: guda onak du edozein auzi¹²⁶ deuntzen.

123. zaiteztekeen] zaitezketen ezabatu ondoren lerroartean idatzita.

124. deuntasunaren] aurretik Ezag- ezabatu du.

125. Bestela] bestela idatzi du lebenengo.

126. auzi] aurretik g- ezabatu du.

Gudak ta kemenak gauz aundi geiago egin dute urkoaren ganako maitasunak baño. Zuen errukiak ez, bañan bai zuen adoreak ditu gaizkatu orain-arte zorigaizpetuak.

“Zer da ona?” galdez zaudete. Ordongo izatea da ona. Utzi neskatx txikiak esatera: “On izatea da, polit ta ukigarri batera izatea¹²⁷.”

Biotz-gabeak deitzen zaituzte. Bañan zuen biotza zindo da <5> eta zuen bioztitasunaren lotsa gogorako zait. Zuen izgoraz lotsatzen zerate, bestetzu beren izberaz dira lotsatzen.

Zatarrak zeratela? Ederki, anaiok! Gorentasuna jantzi zazute, zatarren jaskia da-ta!

Eta zuen biotza aunditzean arro biurtzen da, ba-da gaiztasun zuen gorentasunean. Ezagutzen zaituztet.

Gaiztasunean dira batzen arroa ta makala. Ez dute¹²⁸ ordea alkar ulertzen. Ezagutzen zaituztet.

Etsai gorrotogarriak euki ditzazkezute bakarrik, ez etsai erdeñugarriak. Zuen etsaia-gatik burgor izan bear dezute: orduan bai’dira etsaiaren ondore-onak zeuen¹²⁹ ondore-onak ere.

Jazartzea, ori da jopuarentzat egokia. Men-egitea biz¹³⁰ zuentzat egokia! Men-egite bat biz¹³¹ zuen agintzea ere!

Gudari on batentzat ots ohea du “bear dek” “nai diat” baño. Baita maiteenik zaizuen¹³² guztia ere utzi agint diezazueten.

Biziaren ganako dezuten maitasuna zuen itxaropen goienaren ganako maitasuna biz. Eta zuen itxaropen goiena biziari buruzko eritzi goiena biz.

Zuen eritzi goiena ordea, utzi agint diezazuedan, au bai’da: gizakia aurrendu bear zaion zerbait da.

Bizi zaitezte arren men-egiñaz, gudatuz, zeuen bizitzez! Zer datza¹³³ luzaro-bizitzean! Zein gudarik nai du azkespenik!

Ez dizuet azkesten, barru-barrutik maite zaituztet, nire gudari-anaiok!—

Orrela mintzo zan Zarathustra.

“Also sprach Zarathustra” I

127. izatea] *aurretik dana ezabatu du.*

128. dute] *lapitz ia ikusezinez lerroartean idatzita: dira (?)*

129. zeuen] *zuen ezabatu ondoren lerroartean idatzita.*

130. biz] *aurretik hizki bat ezabatu du.*

131. biz] *aurretik eza- ezabatu du.*

132. zaizuen] *bitzaren bukaeran zegoen hizkia ezabatuta dago.*

133. datza] *aurretik hizki bat ezabatu du.*

<6>

Urkoaren ganako maitasunaz

Urkoaren ondoan leiatzen zerate ta ele ederrak dituzute ortako. Bañan nik diozuet: urkoaren ganako maitasun ori zuen buruarentzat dezuten maitakeria da.

Zuen buruaren gandik igesi urkoaren¹³⁴ gana itzurtzen zerate¹³⁵ ta onbide bat egin nai zenukete ortatik: nik ordea zuen “burgabea” estalintzen det.

Ni-a baño zarrago da I-a; deun daukate I-a, ez berriz Ni-a oraindik: orrengatik da Gizakia urkoaren ondoan leiatzen.

Urkoa maitatzea aolkatuko al dizuet? Urkoari igesi egitea ta urrungoa maitatzea, bai, aolkatuko nizueke¹³⁶ leenik!¹³⁷

Urkoaren ganako maitasuna baño gorago¹³⁸ da¹³⁹ urrungoa, etortzekoaren ganako maitasuna; gizakien ganako maitasuna baño garaiago¹⁴⁰ zait gauz ta irelduen ganako maitasuna.

Aurretik doakikan ireldu ori, nire anai, i baño ederrago dek; zergatik ez dizkiok eure aragi-ezurak ematen? Bañan beldurtzen aiz ta¹⁴¹ urkoaren ganat laster-dagik.

Ezin dezute zeuen burua jasan, aski maite ez dezute: orduan nai dezute urkoa zuek maitatzera liluratu, aren okerrez urrezta zaitezten.

Urkoak oro t'aien auzoak jasan ez zinitzaten nai nuke: era ortan adixkide biotz gain-betea irazan bear bai'zenukete zeuen barrutikan.

Zuen buruaz ongi mintzatu nai dezutenean, jakile bat eratortzen dezute; eta zuen gatik on-eriztera¹⁴² lilurutzen ba'dezute, zeuek¹⁴³ ere zuen buruari on-deritzaiozute.¹⁴⁴

Gezurtia ez da bakarrik bere berjakintzaren aurka mintzo dana, bai, areago, bere jakin-gabearen aurka mintzo dana. Orrela mintzo bai-zerate alkar-izketan, zuen burua ta auzoa batera atzipetuz.

134. urkoaren] *aurretik zerate ezabatu du.*

135. zerate] *lerroartean idatzita.*

136. nizueke] *nizuke idatzi du lehenengo.*

137. leenik] *lenago ezabatu ondoren lerroartean idatzita.*

138. maitasuna baño gorago] *maitasunaren gañean idatzi du lehenengo, eta –ren gañean ezabatu ondoren, lerroartean idatzi du baño gorago.*

139. da] *dago idatzi du lehenengo.*

140. garaiago] *aurretik goi- ezabatu du.*

141. ta] *aurretik koma ezabatu du.*

142. on-eriztera] *on- hitzaren bukaeran hizki bat ezabatu du.*

143. zeuek] *lehenengo zeuei idatzi du.*

144. deritzaiozute] *lehenengo deritzaizue idatzi du.*

Onela dio zoroak: “Besteekikoak aiurria¹⁴⁵ usteltzen du, batez ere norbaitek ez duenean.”

Bata doa urkoaren gana bere burua billatzekotan ta bestea berea galdu-naian. Zuen burua-
ganako <7> maitakeriak espetxe bat egiten dizue bakar-izateetik.

Urrungoek dute urkoarentzat dezuten maitasuna ordaintzen; eta bost batzen zerateneko,
bear du beti seigarren batek il.

Zuen jaiak ere ez ditut maite: Antzezlari geiegi arkitu det aietan ta ikusleak¹⁴⁶ ere antzezlarien
iduriko ibilli oi ziran maiz.

Urkoa ez dizuet irakasten, bai ordea adixkidea. Lurraren jai ta Gizurenaren¹⁴⁷ susmo bat izan
bekizue adixkidea.

Adixkide biotz gain-betea irakasten dizuet. Bañan jakin bear¹⁴⁸ du belaki bat izan,¹⁴⁹ biotz
gain-beteek¹⁵⁰ maitaturik izan nai duenak.

Adixkidea irakasten dizuet, ludia osoturik bere-gan daukana, onaz beteriko opor bat lez,
ludi osotu bat beti eskeintzeko gerturik daukan adixkide irazallea.

Eta ludia, barreiatu¹⁵¹ zaion eran, berriz ere biltzen zaio estunetan, gaitza-zear ongiratze beze-
la,¹⁵² ustekabea-zear elburuetaratze bezela.¹⁵³

Etorkizuna ta urrangoena¹⁵⁴ bira ire gaurko egunaren eragille: ire adixkidean maita zak era-
gille dekan Gizurena.

Anaiok, urkoa¹⁵⁵ maitatzea ez dizuet aolkatzen:¹⁵⁶ aolkatzen dizuet urrangoa maitatzea.

Orrela mintzo zan Zarathustra.

“Also sprach Zarathustra” I¹⁵⁷

145. aiurria] izakera ezabatu ondoren lerroartean idatzita, lehenengo parentesi artean, eta gero parentesia ezabatuta.

146. ikusleak] aurretik entzulea ezabatu du.

147. Gizurenaren] lehenengo gizurenaren idatzi du.

148. bear] eskuizkribuan jakin bear, eta bien artean ezabaturik ikasi. Alemanez ondokoa dakar: “Aber man muß verstehn, ein Schwamm zu sein”. Ziurrenik hiru itzulpen-aukera erabili zituen (Bañan jakin bear du belaki bat izaten / Bañan ikasi bear du belaki bat izaten / Bañan bear du belaki bat izan), eta azkenean ez du ez bata ez bestea utzi.

149. izan] ezabagomaz ezabaturiko zerbaiten gainean idatzi du -n. Ziur aski izaten idatzi du lehenengo.

150. gain-beteek] biotzetik ezabatu ondoren lerroartean idatzita.

151. barreiatu] ezabagomaz ezabaturiko zerbaiten gainean idatzi du -tu.

152. bezela] bezela ezabatu ondoren lerroartean idatzita.

153. bezela] aurretik lez ezabatu du.

154. urrangoena] zerbait (ondorena izan daiteke) ezabatu ondoren lerroartean idatzita.

155. urkoa] aurretik hizki bat ezabatu du.

156. aolkatzen:] aolkatzen, idatzi du lehenengo, komarekin.

157. Also sprach Zarathustra] lapitzez eta beste idazkera batekin azpimarratuta dago, eta azpian Mirande idatzita. Ziur aski azken urteotan Ibinagabeitiaren paperak esku artean izan dituenen batek erabili du lapitza.

<8>

Naizko eriotzaz

Asko beranduegi ta zenbait goizegi iltzen dira. Oraindik arrotz zaigu irakaspen au: “garaiz il adi!”

Garaiz il adi; orixe darakas Zarathustra’k.

Eiki, beñere garaiz bizi izan ez dana, garaiz nola il liteke? Obe luke iñoiz ere jaio ez ba’litz!
— Ori diet gañezkoai aolkatzen.

Gañezkoek ere ordea beren iltzea garrantziko daukate, ta intzaurrik utsenak ere nai¹⁵⁸ du auste. ¹⁵⁹

Guziek garrantziko daukate iltzea: bañan eriotza ez da oraindik jai bat. Gizonak ez dute oraindik jai ederrenak ospatzen ikasi.

Eriotz betegingarria darakuskizuet, bizidunentzat¹⁶⁰ ezten ta itz-eman bat dana.

Bere eriotzaz iltzen da gizon betegiña, garaille, itxaropendun ta itz-emaileen artean.

Orrela ikasi bear litzake iltzen; jairik ez litzake ospatu bear orrelako illuren baten gabea, bizidunen¹⁶¹ ziñak arek onesteko!

Iltze ori da onena; bigarrena berriz gudukan iltzea da, anima aundi bat banatuz.

Gudukariak ta garailleak ordea, biek berdin iguin dute zuen eriotz mutur-beltza, errestan datorrena lapur-antz, ta alaz ere jaun-antzo eldu¹⁶² dana.

Neure¹⁶³ eriotza gorai patzen dizuet, naizko eriotza, nik nai detalako datorkidana.

Eta noiz det naiko?— Elburu bat ta ondoko bat dituenak elburuari ta ondokoari dagokien garaian il nai du.

Baita elburu ta ondokoen begirunea-gatik ez du Bizitzaren¹⁶⁴ txadonean beste lore-txorta zimelik zintzilikatu nai.

158. nai] *aurretik* autsirik izan *ezabatu du*.

159. auste] auts dezaten *ezabatu ondoren lerroartean idatzita*.

160. bizidunentzat] biziztunentzat *ezabatu ondoren lerroartean idatzita*.

161. bizidunen] biziztunen *ezabatu ondoren lerroartean idatzita*.

162. eldu] *aurretik* etortzen *ezabatu du*.

163. Neure] Nire *ezabatu ondoren lerroartean idatzita*.

164. Bizitzaren] bizitz *idatzi du lehenengo*.

Benetan, ez det nai loki-egilleen¹⁶⁵ bezelako izan! aria luzean teinkatzen dute, berak aldiz atzera doazela.

<9> Baita aunitz ere zaarregi egiten dira beren egi ta garaipenentzat; ao ortz-gabe batek ez du geiago edozein egitarako zuzena.

Eta aintza-gose dan orok¹⁶⁶ bear du ordu dalarik ospea utzi ta aldegitiko antze nekean trebetu.¹⁶⁷

Jatetik gelditu bear da jakia gozoen danean: ori ba-dakite luzaro maitaturik izan nai dutenek.

Eiki, ba-dira sagar gaziak, beren izakera¹⁶⁸ bai'da udazkeneko azken egunak arte ez ontzea: ta erabat ondu, oritu ta zimeldu egiten dira.

Beste batzuei biotza zaie leenik zaartzen ta bestetzuei gogoia. Eta zenbait agure dira gaztarooan: bañan gaztetasun berandua da iraunkorrena.

Askori makur jo zaie¹⁶⁹ bizitza:¹⁷⁰ eden-ar batek jaten die biotza. Alegin bite beraz iltzea¹⁷¹ aintzatez zuzenago¹⁷² jo dakien.

Aunitz ez dira iñoiz ontzen, udatik usteltzen bai'dira.¹⁷³ Makalkeriak ditu abarrari eutsi-erazten.

Askoz geiegi bizi dira, askoz luzazegi beren abarrari eutsiz. Ai'letor ekaitz bat ar-yotako usteldura ori zugaitzetik astintzeko¹⁷⁴ oro¹⁷⁵!

Ai'letor eriotz bizkorren predikaririk! Oik nituke benetako ekaitzak ta bizi-zugaitz-astintzalleak! Bañan eriotz geldia baizik ez dantzut predikatzen ta "lurrarekikoa" jasan bear dala.

Lurrarekikoa¹⁷⁶ jasan bear dala predikatzen dizute, ba? Lur orrek zaituzte geiegi jasaten, birau-egilleok!

Egitan, goizegi il zan Hebrear ura, eriotz geldiaren predikariek goersten dutena;¹⁷⁷ baita askoren <10> zorigaiztorako izan da goizegi iltze ori.

165. egilleen] egillea idatzi du lehenengo.

166. orok] aurretik orak ezabatu du.

167. trebetu] hitzaren bukaeran hitz bat ezabatuta dago (agian izan)..

168. izakera] zoria ezabatu ondoren lerroartean idatzita.

169. zaie] die ezabatu ondoren lerroartean idatzita.

170. bizitza] bizitzak idatzi du lehenengo.

171. iltzea] iltzeak idatzi du lehenengo.

172. zuzenago] aurretik geiago ezabatu du; zuzen idatzi du lehenengo, eta -ago lerroartean erantsita dago.

173. bai'dira] bai' lerroartean idatzita.

174. astintzeko] aurretik oro eta dana ezabatu ditu.

175. oro] aurretik zerbait ezabatu du.

176. Lurrarekikoa] aurretik Lurra jasan bear dala ezabatu du.

177. dutena] bai'dute idatzi du lehenengo.

Oraindik Hebrearren negarra ta illundura zituen soilki ezagutzen, on ta zuzenen errearekin batera, Josu Hebrearrak: eta ona non arrapatu¹⁷⁸ bai'zuen il-naiak.

Lekarotzean egon ba'litz on ta zuzenen gandik urrun! Bizitzen ta lurra maitatzen ikasiko zuen agian, baita parr-egitea ere gañera!

Sinets eni, anaiok! Bere irakaspena ukatuko zuen berak, nire adiñerañotu ba'zan! Aski uren zan ukatzeko!

Ez zan oraindik zori ordea. Gazteen maitasuna ez da zori, baita zoritasun-gabe ere¹⁷⁹ dituzte¹⁸⁰ gizadi-lurrak¹⁸¹ iguintzen. Aztun ta loturik dauzkate oraindik gogape ta gogo-egak.

Bañan gizona aurrago da mutil gaztea baño, ta ez ain gotilun: obeki ditu bizitz-eriotzak ulertzen.

Iltzeko azke ta iltzean azke, ezesele deun bat baiesteko ez danean geiago ordu: orrela ditu bizitz-eriotzak ulertzen.

Ez biz zuen iltzea gizadi-lurren aurkako birau bat, adixkideok: ori diot zuen animen eztiari eskatzen.

Zuen gogoak ta zuen onbideak dirdira bezate zuen iltzean, arrats gorri bat lez lurraren inguruz: bestela makur jo bai'zaizueke iltzea.

Orrela det neronek il nai, adixkideok, zeuek lurra maitago dezazuten nigatik; eta lurrerat nai det berriz itzuli,¹⁸² sortu ninduen barruan atsedean ar dezadan.

Benaz, elburu bat zeukan Zarathustra'k, bere pillota jaurti du:¹⁸³ orain zuen da nire elburua, nire ondoan, zuei dizuet urre-pillota jaurtiko.

Beste edozer baño laketago zait zuek urre-pillota jaurtitzen ikustea! Orregatik¹⁸⁴ det nire egoaldia lur <11> ontan pitin bat luzatzen: barkatu otoi!

Orrela mintzo zan Zarathustra.

“Also sprach Zarathustra” I

Vom freien Tode¹⁸⁵

178. arrapatu] *aurretik* il-naiak *ezabatu du*.

179. ere] *lerroartean*.

180. dituzte] ditu *idatzi du lehenengo*.

181. gizadi-lurrak] *aurretik* ere *ezabatu du*.

182. itzuli] *lerroartean*.

183. du] *aurretik* zu- *ezabatuta*.

184. Orregatik] Orrel- *idatzi du lehenengo*.

185. Tode] I *idatzi eta ezabatu du ondoren*.

2.3. Lehenago ere argitaraturiko itzulpenak

2.3.1. Herrikoia: "Ene biotzeko maite argia (Hebrideetako maite-kanta)"

ABA-AIB-012-020 signatura du Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan.

Signatura horrek lanaren bi ale biltzen ditu: Jon Mirandek berak eskuz idatzitako orrialde bat, eta beste orrialde bat ziur aski Andima Ibinagabeitiak mekanografiaturikoa. Bi aleek funtsean testu bera dute, baina bada aldaeraren bat.

Hebrida uharteetan (Eriskay-n) Marjory Kennedy-Fraser (1857-1930) andereak bildu eta argitaraturiko herri-kantua da, gaelikozkoa ("Gradh geal mo chridh" da jatorrizkoaren izenburua, gaelikoz). Argitalpena (1909-1021) ingelesezko itzulpenarekin kaleratu zen, baina lehenengo hiru lerroak soinu-jolas bat dira, esanahirik gabea.

Txema Larreak argitaratu zuen itzulpen hau, 1984an, *Poemak 1950-1966* liburuan. Berriz argitaratzea ez dela alferrikakoa erabaki dut, besteak beste eskuizkribuko eta mekanografiaturiko bertsoietako aldaeren berri emateko.

*Ene biotzeko maite argia*¹⁸⁶
(Hebrideetako¹⁸⁷ maite-kanta)

Bheir mi òro bhan o,
Bheir mi òro bhan i,
Bheir mi òru o ho,
Zu gabe its naiz ni.

I

Gau¹⁸⁸ miñean naizela,
Itxas-gañean bakar,
Maitasun-argiak
Zu gana narakar.
Bheir mi òro e.a.

II

Biotz-eresi zaitut,
Pozeko maniura,
Gau-izar zaindari,
Indar t'argi zera.
Bheir mi orò e.a.

186. *Ene biotzeko maite argia*] *aurretik Neure biotz-maite argia eta ondotik Biotzaren Laztan argia ezabatu du.*

187. Hebrideetako] *mekanografiatuan* Hebridetako.

188. Gau] *eskuizkribuan, hitzari lotuta zerbait (ziur aski gidoia) idatzi eta ezabatu du.*

“Gradh geal mo chridh”
Marjory Kennedy-Fraser.

Jon Mirande'n euskal-itzak.

2.3.2. Prévert: “Osto hilak”

ABA-AIB-013-078 signatura du Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan.

Jon Mirandek berak eskuz idatzitako orri bakar baina bi orrialdeko dokumentuan, eta ziur aski Andima Ibinagabeitiak mekanografiaturiko orrialde bakarreko dokumentuan biltzen da itzulpena. Ale mekanografiatukoaren bukaeran dator itzulpenaren data: “Paris, 1951”. Gainera, ziur aski Josune Olabarria andereak Azkue Bibliotekan erantsitako oharraren arabera, 1951ko urriaren 28ko gutun batekin batera zegoen Miranderen eskuizkribua.

Bi dokumentuek funtsean testu bera dute, aldaera txikiren batekin; eskuizkribua hartu dut nirearen oinarritzat, eta mekanografiatuan agertzen diren aldaeren berri eman dut.

Joseph Kosma (1905-1969) musikariaren eta Jacques Prévert (1900-1977) idazlearen lankidetzaren emaitza ospetsuena da “Les feuilles mortes” kantua. 1945.ean sortu zen frantsesez, baina ingelesezko itzulpenari esker (“Autumn leaves”, Johnny Mercer, 1949) egin zen are ospetsuago pop- eta jazz-munduan.

Txema Larreak argitaratu zuen Miranderen itzulpena, 1984an, *Poemak 1950-1966* liburuan, baina irakurketa desberdinak eskainiko ditut hemen.

<1>

Osto hilak
(Les Feuilles Mortes)

Joseph Kosma'ren musika.
Jon Chaho'ren euskal-itzak (zuberoeraz)¹⁸⁹

I

Oi nahi niken gaur orhit hendin
nula lagün ginen lehenago
Ederrago ziâ bizia ordin,
ekhia egün beno berugo.¹⁹⁰
Osto hilak phalakin biltzen 'tün
So 'in nik ez diñat âhâtze...

189. (zuberoeraz) *mekanografiatuan* (zuberoer, *lerroa amaitu gabe*.

190. berugo] *aurretik beruago ezabatu du; mekanografiatuan beruago.*

Osto hilak phalakin¹⁹¹ biltzen 'tün
 orhixamen eta phenak ere,
 Et'Ipharrak dütin iruiten
 âhâtziaen gai hotzilat
 So 'in, nik ez diant âhâtzia
 khantatzen hin ahaidia.

Lelo

Ahaide bat dün gü¹⁹² üdüri
 hik ni maitha, nik hi maitha.
 Alkharrekin güntiâ bizi
 nik hi maitha, hik ni maitha.
 Bena bizitziak berhezten
 dütin, emeki, bihotzak
 Eta hariñan hurak khentzen
 maite ohien ürhatsak....

<2>

II

Osto hilak phalakin biltzen 'tün
 orhixamen eta phenak ere
 En'amorio ixilak hatik
 biziari dion esker halere.
 Maite hüntüdan, hi hañen ejer
 nula bai âhâtz hüntirot?
 Ederrago ziâ bizia ordin
 ekhia egün beno berugo¹⁹³
 Lagün eztieta hüntüdan
 Bena zertako düten phena?
 Hik khantatü ahaidia
 sekül'ez diant âhâtzia....¹⁹⁴

Paris'en 1951¹⁹⁵

191. phalakin] *mekanografiatuan* phlakin.

192. gü] *mekanografiatuan* gü.

193. berugo] *mekanografiatuan* beruago.

194. âhâtzia] *meanografiatuan* âhântzia.

195. Paris'en 1951] *Obar hau ez dago eskuizkribuan, baina bai ale mekanografiatuan. Eskuizkribuaren lehenengo orrialdearen hasieran, beste ohar hau dago, lapitzez, ziur aski Azkue Bibliotekan idatzita: (1951) - Urrilak, 28 gutunarekin.*

2.3.3. García Lorca: "Antoñito Camborioaren eriotza"

ABA-AIB-012-009 signatura du Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan.

Bi orrialdetan (orri bakarrean) Jon Miranderen eskuz idatziriko dokumentua da, garbi-garbia, inolako zuzenketarik gabea.

Federico García Lorcaen (1898-1936) *Romancero Gitano* (1924-1927) liburuko hemezortzi poemetako bat da "Muerte de Antoñito el Camborio".

Miranderen itzulpena Patri Urkizuk argitaratu zuen 1997an, Jon Mirande Orhoituz (1925-1972) liburuan. Zenbait lekutan irakurketa arras desberdinak egin ditudanez, uste dut komeni dela berriro ere editatzea.

<1>

Antoñito Camborioaren eriotza

José Antonio Rubio Sacristán 'i.

Entzun da il-mintzoka bat
Guadalquivir aldean.
Klabelin-gizar-mintzo bat
lengo-mintzo-artean.
Zangoetan ark iltzatu
zizkien basurde-oskak.
Xaboiuak zemazkila
jokan izurde-jauzkak.
Busti zun etsai-odolez
lepokoa gorrillun,
bañan lau sastakai ziran
ta erori bear zun.
Izarrek sartzean ezten -
burni ur goibelari,
txaalak txidar-beronikaz
amets egiten ari,
entzun da il-mintzoka bat
Guadalquivir aldean.

*

— Antonio Torres Heredia,
Camborio motots latza,
illargi orlegiz belun,
klabelin-gizar-itza:

Nork dizu bizia kendu
 Guadalquivir aldean?
 — Nire lau aide Heredia
 Benamej'ko semeek.
 Besteetan ez bekaiztua
 Nitan bekaizten aiek. <2>
 Oski korintu-margozko,
 bolizko domiña, ta
 neure larru au gaimelur
 t'urkitzez oratuta.
 — Ai! Antoñito Camborio
 Erregin batentzat gai!
 Oroitu zaite Neskutsaz
 ilko bai'zera orai.
 — Ai! Federico García
 deitu Erri-Zaintzari!
 Bai-da nire soiña lertu
 arto-zirtoin-iduri.

*

Irutan odol ixuri,
 eta il zan saietsez.
 Txanpon bizi berriztuko
 dana geio iñoiz ez.
 Jartzen dio gotzon its batek
 burua koxin baten.
 Bestetzuek gorritz erbal
 zuzi bat piztu zuten.
 Bai eta lau lengusuak
 Benamej'ratzean,
 il-mintzoka zan gelditu
 Guadalquivir aldean.

F.G. Lorca. "Jitu-nerutitz-sorta" tik
 (Mirande'tar Jon'ek españeratik euskeratua)

2.3.4. Wilder: "Lullabyland"

ABA-AIB-013-067 signatura du Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan.

Kantu labur honen bi ale daude Azkue Bibliotekan: bat Jon Mirandek eskuz idatzia (orrialde bakarra), eta bestea ziur aski Andima Ibinagabeitiak mekanografiatua (hau

ere orrialde bakarra). Testuan ez dago ia desberdintasunik, baina bai ahapaldien aurkezpenean; nire edizioa eskuizkribuan oinarritu dut, eta oharretan eman dut mekanografiatuaren berri.

Alec Wilder (1907-1980) musikari eta idazleak, musika-lan klasikoak idazteaz gain, bere garaiko pop-kantari ospetsuenentzat ere idatzi zituen kantuak (Mills Brothers, Peggy Lee, Mabel Mercer...). Horietako bat da *Lullaby Land* (1949), Bing Crosbyk 1947an kantatu eta grabatua.

Jon Mirande Orhoituz (1925-1972) liburuak (Urkizu 1997) dakar Miranderen itzulpena. Funtsean ez dago nirean irakurketa desberdinik, baina egoki iritzi diot berriz argitaratzeari, eskuizkribuaren eta mekanografiatuaren arteko desberdintasunen berri emateko eta Ibinagabeitiaren paperetan egun diren Miranderen itzulpen guzti-guztiak editatzeko (hau baitzen agian berriz argitaratzea behar ez zuen bakarra).

*Lullabyland*¹⁹⁶

Lo egizu
begiak itxi, maite,
nik abestuz,
sartu ametsetan.¹⁹⁷

Gaua dator,
illargia or,
lo egizu,
lo egin bizkor...¹⁹⁸

Enetxoa,
begiak itxi, gabon.
Illargitan
amets gozo egin.

Ni¹⁹⁹ aldean
nauzun artean,
egin lo, maite,
sartu ametsetan.

(*Lullabyland*'en itzulpena. *Bing Crosby*'k abestua)²⁰⁰

Mirande'tar Jon. 24-VI-1951.²⁰¹

196. *Lullabyland*] *ale mekanografiatuan*, *Lullabyland*.

197. *ametsetan*] *ale mekanografiatuan*, *ahapaldia amaitzen da hemen*.

198. *bizkor*] *ale mekanografiatuan*, *bigarren ahapaldia amaitzen da hemen*.

199. *egin*. / *Ni*] *aurretik egin*, / *ni ezabatu du*.

200. *Lullabyland*'en... abestua] *Ohar hau ez dago ale mekanografiatuan*, *baina, ordez, izenburuaren eta testuaren artean, beste hau dago*: *Bing Crosby*'k abestua. *Mirande*'k itzulia.

201. *Mirande*'tar Jon. 24-VI-1951] *Ohar hau ez dago eskuizkribuan*, *baina bai ale mekanografiatuan*.

2.3.5. Pennaod: "Lehen gauko kanta"

ABA-AIB-013-06e signatura du Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan.

Andima Ibinagabeitiaren bilduman, hiru dokumentuk osatzen dute signatura hau. Lehenengoa, Jon Mirandek eskuz idatziriko orria, bi aldeetatik erabilia dago: orriaren alde batean Pennaoden testuaren itzulpena dago (Miranderen beraren eskuz eginitako zuzenketaz bete), eta bestean itzulpenaren azken lerroak eta Mirandek Ibinagabeitiari zuzenduriko gutuna, datarik gabea (hemen argitaratuko ez duguna). Bigarren dokumentua Andima Ibinagabeitiak mekanografiatua da, itzulpenaren transkripzio garbia. Hirugarren dokumentua bigarrenaren ikatz-kopia da, baina Mirandek bolaluzuzendua. Azken horretako testu zuzendua hartu dut nire edizioaren oinarritzat, Miranderen azken nahia hor bildu delakoan; oharretan eman dut eskuizkribuko eta Ibinagabeitiaren zuzendu gabeko testuko aldaeren berri.

Itzulpenaren orrian bertan idatziriko gutunean dioena da itzulpenari dagokion jatorrizkoari buruz dakigun ia bakarra. Honela dio Mirandek: "Eskuthitz hunen ondoren aurkhituko duzu Pinault ene lagun bretoinaren poema baten itzulpena. *Gernikarako* egoki dateke?".

Ondo ezaguna da Georges Pinault (1928-2000), breizerazko izenez Goulven Pennaod, eta Mirande lotzen zituen adiskidetasuna eta harremana; Francis Favereauk idatzi zuen *Lapurdum* aldizkarian horri buruz (Favereau 2000). Ez dugu ezagutzen Mirandek euskaratu duen poemaren breizerazko jatorrizkoa, eta ez dakigu argitaratua den ere; 1953ko maiatzaren 25ean Hanoi (Vietnam) hirian sinatua da, eta badakigu Pennaodek Indotxinako gerran (1946-1954) jardun zuela Frantziako armadarekin.

Miranderen itzulpena behintzat ez zen argitaratu, berak nahi zuen moduan, *Gernika* aldizkarian. Txema Larreak argitaratu zuen, 1984an, *Poemak 1950-1966* liburuan, eta gero Patri Urkizuk, 1997an, *Jon Mirande Orhoituz (1925-1972)* liburuan; baina uste dut merezi duela hemen berriz argitaratzea, irakurketa desberdin batzuk proposatzen ditudalako, eta eskuizkribuaren eta mekanografiatuaren arteko desberdintasunen berri ematea ere komeni dela uste dudalako.

<1>

Lehen Gauko Kanta

Goulc'hen²⁰² Pennaod'ek idatzia,
Mirande'tar Jon'ek breizaratik²⁰³ itzulia.²⁰⁴

Olehen elkharrangatzea itzal-oihaletan, lehen laztan lotsatiasoinaren²⁰⁵ bilha²⁰⁶ hazta-muka,²⁰⁷

202. Goulc'hen] *Ibinagabeitiarenean* Goulc'hen.

203. breizaratik] *Ibinagabeitiarenean* breizeratik.

204. Goulc'hen ... itzulia] *eskuizkribuan ohar laburragoa da*: Goulc'hen Pennaod.

205. soinare] *eskuizkribuan* gorputzaren ezabatu ondoren lerroartean idatzita dago.

206. bilha] *Ibinagabeitiarenean* bila.

207. hazta-muka] *eskuizkribuan* hazta-mukan.

bedatsberriko haize²⁰⁸ hozpilaren buhatze²⁰⁹ samurr,²¹⁰ bizkarr²¹¹ lerdinak eta iztarrbustiak kilikatuz atzera dathorrenik.²¹²

Ezti duk hiresoina,²¹³ adiskide²¹⁴ hori! otsan,²¹⁵ hireizaera. Gure esku kelkharrerideiten²¹⁶ die²¹⁷ indarttsuen²¹⁸ maitarzun-bahitan, eta elkharr uzten, bulharrean balaku borthitz batekin.

Igurikiz betheriko hazka gorputz-gainean, gizontarzun zutituaren baranoan inguraka.²¹⁹ Batzen dituk gure ezpainak; maitarzunaren²²⁰ bethiereko dantza ta khoreia dantzatzen die gure mihi²²¹ botituek.²²²

Zergatik²²³ hain²²⁴ luzaroberanthu²²⁵ dugu? Nolako daimônak²²⁶ hainbat demboran²²⁷ eramangaitu²²⁸ emaztegai limburr²²⁹ ta txepelekiko maitabideetan?

Huna²³⁰ iausten delaguganatz zerutiko Aphrodîtê,²³¹ baterakidetzen baitira Hura²³² baithangure arima garbiak gure soin²³³ gothorrekin,²³⁴ ezin hautsizko atxiki sakon batean.

208. haize] *eskuizkribuan aizearen idatzi du lehenik; ikatz-kopian bolalumaz erantsia da h-.*

209. buhatze] *eskuizkribuan buha idatzi du lehenik, gero gehitu dio -tze.*

210. samurr] *eskuizkribuan samurra idatzi du lehenik.*

211. bizkarr] *eskuizkribuan aurretik bizpahiru hitz ezabatu ditu; Ibinagabeitiarenean bizkar.*

212. dathorrenik] *eskuizkribuan aurretik hitz bat ezabatu du.*

213. soina] *eskuizkribuan gorputza ezabatu ondoren lerroartean idatzita.*

214. adiskide] *eskuizkribuan aurretik ene ezabatu du.*

215. otsan] *eskuizkribuan aurretik eta ezabatu du.*

216. erideiten] *eskuizkribuan aurretik edir- ezabatu du.*

217. die] *eskuizkribuan eta Ibinagabeitiarenean <die,>.*

218. indarttsuen] *Ibinagabeitiarenean indarttsuen.*

219. inguraka] *eskuizkribuan hitzaren bukaeran zerbait ezabatu du.*

220. maitarzunaren] *eskuizkribuan aurretik eta gure ezabatu du.*

221. mihi] *eskuizkribuan ezpain ezabatu ondoren lerroartean idatzita.*

222. botituek] *Ibinagabeitiarenean botztuek, eta bolalumaz zuzenduta boituek.*

223. Zergatik] *Ibinagabeitiarenean Zergaitik.*

224. hain] *Ibinagabeitiarenean ain.*

225. beranthu] *eskuizkribuan -th-ren ordez lehenik beste zerbait idatzi du. Gainean idatzitako -th- oso garbi geratu ez denez, ezkerreko marjinan beranthu idatzi du, -th- azpimarratuta.*

226. daimônak] *eskuizkribuan bukaerako -a-ren ordez beste hizki bat idatzi du lehenik; gero, lerroartean, -a-. Ibinagabeitiarenean daimonak*

227. demboran] *Ibinagabeitiarenean denboran.*

228. gaitu] *eskuizkribuan hitzaren bukaeran hizki bat ezabatuta dago.*

229. limburr] *Ibinagabeitiarenean linburr.*

230. Huna] *Ibinagabeitiarenean Hunat.*

231. Aphrodîtê] *Ibinagabeitiarenean Aphrodite.*

232. Hura] *eskuizkribuan lehenik hura idatzi du; Ibinagabeitiarenean hura.*

233. soin] *eskuizkribuan gorputz ezabatu ondoren lerroartean idatzita.*

234. gothorrekin] *eskuizkribuan gothorrekilan idatzi du lehenik, Ibinagabeitiarenean gothorrek.*

Mintzo²³⁵ haiz, eta behatzen²³⁶ natzaik neu²³⁷ zoraturik;²³⁸ iainkoa poeta egiten duk²³⁹ nigan, eta lurrbira²⁴⁰ symphoni²⁴¹ bihurtzen duk. Abagunea nahasten diagu eulizkiak [eulizki: mosquite-ro]²⁴²; irazaiten²⁴³ duen²⁴⁴ haizeragiletiko²⁴⁵ [aizeragile: aventadora. Bestehitz hobeagorik badazaguzu, hura ezarr ezazu]²⁴⁶ buha²⁴⁷ hotxaren beko²⁴⁸ azaliekilan.²⁴⁹

Biharr etzanik egonen ahal gaituk ugo lhodian,²⁵⁰ gure²⁵¹ erhi²⁵² tinkatuak sarrthurik²⁵³ hainbat eta hainbat maite genduen²⁵⁴ lurreon;²⁵⁵ gure duk gau haur, ordea, eta gure solhazak iraunen dik zorionaren zorionean²⁵⁶ lokharrtzen garen arreo,

O²⁵⁷ gu, mailkideok.²⁵⁸

Hà - Nôi 25-5-53²⁵⁹
M. J.ek breizharatik itzulirik.²⁶⁰

235. Mintzo] *eskuizkribuan paragrafo honen ezkerreko ertzean <*> idatzi du, itzulpenaren bukaerako oharretarako deia.*
 236. behatzen] *eskuizkribuan aurretik neu ezabatu du.*
 237. neu] *eskuizkribuan lerroartean idatzita dago.*
 238. zoraturik] *eskuizkribuan hasierako z-ren ordez beste zerbait idatzi du lehenik.*
 239. duk] *eskuizkribuan aurretik bihurtzen ezabatu du; duk-en ordez lehenik da idatzi du.*
 240. lurrbira] *eskuizkribuan aurretik mundua ezabatu du, Ibinagabeitiarenean <lurrbira,>.*
 241. symphoni] *Ibinagabeitiarenean symphoni.*
 242. eulizki: mosquite-ro] *Ibinagabeitiarentzat idatziriko oharra itzulpenaren amaieran dago*
 243. irazaiten] *eskuizkribuan irazan idatzi du lehenik; Ibinagabeitiarenean irazarritzen .*
 244. duen] *eskuizkribuan lerroartean idatzita.*
 245. haizeragiletiko] *eskuizkribuan eta Ibinagabeitiarenean aizeragiletiko; eskuizkribuan -l-ren ordez -n- idatzi du lehenik.*
 246. aizeragile...] *Ibinagabeitiarentzat idatziriko oharra itzulpenaren amaieran dago.*
 247. buha] *eskuizkribuan aize ezabatu ondoren lerroartean idatzita.*
 248. beko] *eskuizkribuan eta Ibinagabeitiarenean peko.*
 249. azaliekilan] *eskuizkribuan aurretik azpiko ezabatu du.*
 250. ugo lhodian] *eskuizkribuan ugo lhodietan idatzi du lehenik.*
 251. gure] *eskuizkribuan aurretik hitz bat ezabatu du.*
 252. erhi] *eskuizkribuan hitzaren bukaerako -ak ezabatuta dago.*
 253. sarrthurik] *eskuizkribuan ezkerreko marjinan idatzita dago, gezi batekin dagokion lekura lotuta.*
 254. genduen] *Ibinagabeitiarenean zenduen.*
 255. lurreon] *eskuizkribuan orri-barrenean idatzita dago, gezi batekin dagokion lekura lotuta. Lehenik lurraren bai- eta lurrean sarrthurik idatzi eta ezabatu du; Ibinagabeitiarenean Lurrean.*
 256. zorionean] *hemendik aurrerakoa eskuizkribuan orriaren atzeko aldean.*
 257. O] *eskuizkribuan eta Ibinagabeitiarenean oi.*
 258. mailkideok] *eskuizkribuan mailkideak idatzi du lehenik.*
 259. 25-5-53] *eskuizkribuan 25:5:53.*
 260. M. J.ek breizharatik itzulirik] *eskuizkribuan dago ohar hau; mekanografiatuan, honen ordez, testuaren hasierakoa.*

3. Eranskina: Mirandek euskaratutako lanen zerrenda

IPUIN ITZULIAK

- *Ixiltze* (Edgar Allan Poe), *Euzko Gogo* 3-4 (1951).
- *Mette, Jutlandeko ixtorio zahar bat* (anonimoa), *Herria* 127 (1952).
- *Amontillado upela* (Edgar Allan Poe), *Egan* 2 (1952).
- *Legearen aitzinean* (Franz Kafka), *Euzko Gogo* 1-2 (1954).
- *Ipuin kondatzailea* (H. H. Munro “Saki”), *Egan* 1 (1956).
- *Bi fraideak* (S. O’Neill), *Euzko Gogo* 1-2 (1956).
- *Burua* (B. Manciet), *Euzko Gogo* 1-2 (1957).
- *Leiho irikia* (H. H. Munro “Saki”), *Egan* 3-4 (1960).
- *Gizon-zugaitza* (Séamus ó Mainnin), *Egan* 1-3 (1969).
- *Adarra gatik adarra* (Giovanni Boccaccio), argitaragabea, hemen lehenengoz argitaratua.
- *Izal (Estalitz bat)* (Edgar Allan Poe), argitaragabea, hemen lehenengoz argitaratua.
- *Lehoin zintzoa* (Ernest Hemingway), argitaragabea, hemen lehenengoz argitaratua.

POEMA ITZULIAK

- *Bi beleak (eskoziar kanta zaharra)* (anonimoa), *Euzko Gogo* 3-4 (1950).
- *Ba nin adiskide bat* (Ludwig Uhland), *Euzko Gogo* 5-6 (1950).
- *Bela* (Edgar Allan Poe), *Euzko Gogo* 9-10 (1950).
- *Lotazilak hamabi* (Per Denez), *Euzko Gogo* 11-12 (1950).
- *Goiztar txoriek kanta bezate* (Leon Jasson), *Euzko Gogo* 5-6 (1951).
- *Mendi gallurretatik* (Friedrich Nietzsche), *Gernika* 18 (1952).
- *La belle dame sans merci* (John Keats), *Euzko Gogo* 3-4 (1952).
- *Hirur lili = Drei lilien (Abesti aleman zahar bat)* (anonimoa) *Euzko Deya* 365 (1953).
- *Kantatzen du kantuz* (Gaston III, Comte de Foix), *Euzko Deya* 357 (1953).
- *Lekhoreko biziarena* (Hugo von Hofmannsthal), *Euzko Gogo* 1-2 (1954).
- *Eros arrosen artean* (Anakreonte), *Euzko Gogo* 5-8 (1954).
- *Zaldiz zeruan* (Stan Joans), *Euzko Gogo* 1-2, (1957).
- *Erri-min* (Friedrich Schiller), *Egan* 1-4 (1959).
- *Atzerriko neskatilla* (Friedrich Schiller), *Egan* 1-4 (1959).
- *Ez diteke nor-nai izan pagano* (René de Clercq), *Egan* 1-2 (1960).

- *Kattalin* (“*Clementine*” *england doiñuz*) (Percy Montrose?), *Olerti* 3-4 (1965).
- *Osto hilak* (Jacques Prévert), *Mirande* (1984).
- *Ene Biotzeko Maite Argia* (*Hebrideetako maite-kanta*) (anonimoa), *Mirande* (1984).
- *Antoñito Camborioaren eriotza* (Federico García Lorca), *Urkizu* (1997).
- *Lullabyland* (Alec Wilder), *Urkizu* (1997).
- *Ene kutuntxu* (George H. Clutsam), argitaragabea, hemen lehenengoz argitaratua.
- *Mozkor zaitte* (Charles Baudelaire), argitaragabea, hemen lehenengoz argitaratua.

BESTELAKO ITZULPENAK

- *Breizera* (Per Denez), *Euzko Gogo* 9-10 (1951).
- *Iru errien alegia* (Mark Legatz), *Gernika* 19 (1952).
- *Humore beltzaren modelak* (anonimoak), 1-10- ipuinak: Gero (1976); 11-18. ipuinak: “Ipuin beltzak”, *Egan* 3-6 (1960).
- *Lehen gauko kanta* (Goulven Pennaod), *Mirande* (1984) eta *Urkizu* (1997).
- *Orrela mintzo zan Zarathustra* (Friedrich Nietzsche), lehen zatia: *Urkizu* (1997); beste hiru zatiak: argitaragabeak, hemen lehenengoz argitaratuak.

BIBLIOGRAFIA

- ARRUE, Antonio (1963-1964). “Cuatro poetas vascos actuales”, *Euskera* 8-9, 179-198.
- ALDEKOA, Iñaki (1992). “Nietzsche-ren eragina Mirande eta Arestirengan”, in Galeuzca (1994) *Influencia europea nas literaturas de Galeuzca : IX Encontro de Escritores Galegos, Vascos e Catalans. Galicia, 29 de Outubro a 1 de Novembro de 1992*, [S.l.]: Galeuzca, 9-25.
- AULESTIA, Gorka (1989). “Dos poetas pioneros: Lauaxeta y Jon Mirande”, in *Congreso de Literatura (Hacia la Literatura Vasca), II Euskal Mundu-Biltzarra*, Madril: Castalia, 255-270.
- AZURMENDI, Joxe (1989). *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan*, Donostia: Susa.
- FAVEREAU, Francis (2000). “Goulven Pennaod, Jon Mirande et la Bretagne”, *Lapurdum* V, 293-305.
- GABILONDO, Joseba (2006). *Nazioaren hondarrak: Euskal literatura garaikidearen historia postnazional baterako hastapenak*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- IBINAGABEITIA, Andima (1953). “Olerkariarenean”, *Gernika* 23, 98-102.
- IGELA (1962): “Une revue satirique en langue basque: Igela”, *Igela* 1, [Berrargitaratua: Jon Mirande & Txomin Peillen (1979) *Igela, euskaldun heterodoxoen errebista*, Donostia: Hordago, 37-38].
- JAKA, Aiora (2009). “El discurso de la traducción en la historia de la traducción vasca”, *1611: Revista de historia de la traducción* 3, <<http://www.traduccionliteraria.org/1611/art/jaka.htm>>.
- JAKA, Aiora (2010). “La traduction récréatrice et récréative au Québec et au Pays basque: exemples de Jacques Brault et de Joseba Sarrionandia”, *Association Canadienne de Traductologie. Jeunes chercheurs. Articles 2009-2010*, <[---

297](http://www.uottawa.ca/associations/act-cats/Francais/JeunesChercheurs/Articles.htm#2009-2010_>.</p><p>MIRANDE, Jon (1976). <i>Jon Mirande-ren idazlan hautatuak</i> (Txomin Peillenek antolatua), Bilbo: Gero-Mensajero.</p><p>MIRANDE, Jon (1984). <i>Poemak 1950-1966</i> (Txema Larreak apailatutako edizioa), Donostia: Erein.</p><p>MIRANDE, Jon (1999a). <i>Jon Mirande Aiphasorho. Obra Osoa (1)</i>, Alegia: Hiria Liburuak.</p><p>MIRANDE, Jon (1999b). <i>Jon Mirande Aiphasorho. Obra Osoa (2)</i>, Alegia: Hiria Liburuak.</p><p>MUJIKA, Luis Mari (1984a). <i>Miranderen poesigintza (I)</i>, Donostia: Haranburu-Altuna.</p></div><div data-bbox=)

- MUJIKA, Luis Mari (1984b). *Miranderen poesigintza (II)*, Donostia: Haranburu-Altuna.
- MUJIKA, Luis Mari (1999). “Miranderen bizia eta ingurugiroa”, in Jon Mirande (1999a).
- PEILLEN, Txomin (1987). “Benetazkoa eta asmatuzkoa Jon Miranderen idazlanetan”, Egan 1-2 (1987), 5-11.
- RUIZ, Iñigo (1995). “Virgilio Txerribuztangoerrekan” (I. *Bukoliken* eta *Georgiken* euskal itzulpenak), *ASJU* 29 (2-3), 661-696.
- SARRIONANDIA, Joseba (2006 [1985]). *Ni ez naiz hemengoa*, Iruñea: Pamiela.
- SARRIONANDIA, Joseba (1995 [1985]). *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak*, Iruñea: Pamiela.
- SARRIONANDIA, Joseba (1981). *Izuen gordelekuetan barrena*, Bilbo: Bilboko Aurrezki Kutxa.
- SARRIONANDIA, Joseba (1983). “Haur besoetako eta beste ninfula batzu”, *Maiatz* 4, 3-8.
- SARRIONANDIA, Joseba & Mitxel SARASKETA (1985). *Hamairu ate*, Donostia: Elkar.
- SARRIONANDIA, Joseba (1988). *Marginalia*, Donostia: Elkar.
- URKIZU, Patri (1997). *Jon Mirande Orhoituz (1925-1972)*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Algunas traducciones inéditas de Mirande

En este artículo se publican algunas traducciones inéditas de Jon Mirande, precedidas de una reflexión sobre la manera en que el autor suletino concebía y utilizaba la traducción. Además de destacar la importancia de la obra de Mirande para la historia de la traducción en lengua vasca, se pretende evidenciar las similitudes entre la práctica traductora de Mirande y la de Joseba Sarrionandia. En primer lugar, la variedad de los autores traducidos por Sarrionandia recuerda los esfuerzos de Mirande por enriquecer la literatura vasca mediante corrientes literarias modernas importadas de otras literaturas. En segundo lugar, es remarcable la influencia que las obras traducidas por ambos autores han ejercido en sus respectivas creaciones. En último lugar, la manera en que Mirande utiliza la traducción sugiere una concepción postmoderna de la traducción, elaborada de manera más explícita por Sarrionandia.

Unpublished translations of Mirande

This article presents some unpublished translations of Jon Mirande, preceded by a reflection on how the author from Soule conceived and used translation. As well as pointing out the importance of Mirande's works for the history of translation in the Basque language, the intention of the article is to highlight the similarities between translation works of Mirande and Joseba Sarrionandia. Firstly, the variety of the authors translated by Sarrionandia reminds us of the efforts by Mirande to enrich Basque literature with modern literary currents imported from other literatures. Secondly, the influence of works translated by both authors on their respective creations is quite remarkable. Finally, the way that Mirande uses translation suggests a post-modern conception of translation, elaborated in a more explicit manner by Sarrionandia.

Quelques traductions inédites de Mirande

Cet article présente des traductions inédites de Jon Mirande, précédées d'une réflexion sur la manière qu'avait l'auteur souletin de concevoir et d'utiliser la traduction. En plus de souligner l'importance de l'œuvre de Mirande dans l'histoire de la traduction en langue basque, l'article tente de mettre en évidence les similitudes entre la pratique traductionnelle de Mirande et celle de Joseba Sarrionandia. En premier lieu, la variété des auteurs traduits par Sarrionandia rappelle les efforts de Mirande pour enrichir la littérature basque par des courants littéraires modernes importés d'autres littératures. Deuxièmement, les œuvres que ces deux auteurs ont traduites ont exercé une influence considérable sur leurs créations. Enfin, la façon de Mirande d'utiliser la traduction suggère une conception postmoderne de la traduction, élaborée plus explicitement par Sarrionandia.